

## Herririk Herri |7|

Elorrioko herri-ondarea barru-barrutik ezagutzeko ibilbideak osatzen dabilz

## Ekonomia |10|

Dinalot, Mafisa eta Mecánicas Mallabin erregulazino espedienteen zain dagoz

## Berbaz |9|

Iratxe Esnaola: ".eus domeinuaren lehen pausoak ematen dihardugu".

# 25. urteurrena ospatu dau Atxarte egoitzak

Gorabide elkarteak Abadiñoako Astola auzoan daukan Atxarte egoitzak mende laurdena bete dau.

Ospakizunean Juan Maria Aburto sailburuak eta Abadiñoako alkate Jose Luis Navarrok parte hartu eben.

Eguazteneko ekitaldian adimen urriko pertsonen familiek urteotan egindako ahalegina goraiatu eben.

4



Gorabideko presidentek lore-sorta emon eutsan Lupe Espinosari, boluntario jarduten dabena omentzeko. I.G.

## Aurrekontuak eztabaidagai hainbat udaletan

**Durangaldea** • Durangoko udalbatzarrak onartutako mozinoaren ondorioz, otsailean 2009ko aurrekontuak adostu beharko ditue. EAJK dagoeneko bere proposamena mahai gainean jarri dau. Otxandion eta Iurretan, barriz, aurrekontuak asteen onartu ditue.

2-3

## Kontsultategia handitu guran dihardu Udalak

**Atxondo** • Osakidetza egindako eskariari erantzunez, Medikuntza Kontsultategia handitzeko proiektua prestatu dau Udalak. Lokalaren mantenuaren gastuak hemendik aurrera Osakidetza hartzeko eskatuko deitso Udalak, orain arte bere gain hartu dituen arren.

6

## Poesia bilduma Internetean irakurgai

**KULTURA** • Hensilkin bizi da Iñaki Larrea zornotzarra, eta 'Arratseko meditazioak' izeneko poema bilduma eman du Internetean argitarara. Olerkigintza eta idazten dituen gogoetaz galdetu deitso.

13

## Klubena Arteko Pilota Txapelketa, gori-gori

**KIROLAK** • Berrizko Oizpek sailkatzeko aukerak ditu esku pilotan; Abadiñoako Atxartek, aldiz, hanka eta erdi kanpoan dauka. Zestán, Ezkurdik garaipena behar dau saltsan jarraitzeko; goma-paletan Tornosolori aldapa gora jarri jako ligaxka. Datozen aste bietan erabakiko dira finalerdietarako txartelak.

24

### • Berriz

Astehenetik aurrera, trafiko ordenantza barria indarrean

4

### • Zaldibar

Kale izendegi barria oinarritutako plakak jartzen dihardue

6

### • Mallabia

Orraitioren urteko batzarra

3

San Antonio-Santa Rita  
Ikastetxea



Balbino Gantxonandia, 3  
Durango - 48200

c.s.antonio@euskalnet.net  
www.sanantonio-santarita.com

Tlf. 94.681.67.76  
Fax. 94.681.41.61

## AURREMATRIKULA



# HERRIRIK HERRI >

## DURANGO

### Enplegu politika bideratzeko dirua jaso gura dabe udal kontuetan

Gobernu Taldeak 31,7 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu dau, "inbertsino atalean eta ekonomiaren sustapenean indar eginez"

Otsaila amaitu aurretik 2009rako udal aurrekontu proposamena aurkeztuko dau udalbatzarrean Gobernu Taldeak; 26rako iragarri dabe, asteon, eztabaida. PPren babesagaz onartutako PSE-EEren mozinoak jasotako konpromisoa beteko da holan. Abstenitu egin ziren EB-Berdeak, Aralar eta EAJ; Talde Mistokoek, barriz, kontra egin eben. Emendakinak aurkezteko, barriz, hilaren 13a daukie epemuga udal taldeek.

Hiru arlo nagusitan egin dau indarra EAJk asteon aurkeztu den eta 31,7 milioi euro batzen dituen aurrekontu proposamenean, "besteak

teak baztertu barik": inbertsinoen atalean (4,7 milioi euro); komertzioan (131.500 euro), turismoan (166.209 euro) eta hainbat gizar-te eragilegaz elkarlanean lanerazteaz sustatzeko sortu gura daben formazino eta enplegu politikak garatzeko egitasmoa bultzatzen (150.000 euro); eta bazterte-arriskuan direnendako sarea "finkatzen", Gizarte Ekintza eta Koope-razino eta Garapen arloan 2,1 milioi euro bideratuz eta koope-razinorako %0,7 mantenduz. "Inbertsino publikoa eta ekonomia sustatzea" izan ei dira lan ildo nagusiak.

**EAJk aurkeztutako aurrekontu proposamenak formazino eta enplegu politikak garatzeko egitasmo barria jaso dau**

"Oportunista" Gestino "negargarria" berretsi eban PSE-EEK mozinoan eta idatziaren zergaitia, eta, aurrekontu-prozedura hilabetean gauzatu gura izatea ulertu ez arren, alde izan eban PP.

**"Oportunista"**

EB-Berdeek edukia jarri eban epemugaren aurretik, eta Aralarrek 2008a udal-kontu barik eta kredi-

tu aldarazpenekin bete dela gogorazio eban: "interes orokorraren ginetik norberaren interesak negoziatzeko aprobetxatu da". Talde Mistoa "oportunistatza" jo eban mozinoan, "luzapena bultzatu eta kreditu aldarazpenak negoziatu direnean".

**Otsailaren 13a arte aurkeztu leitekez zuzenketak; 26an deitu gura dabe udalbatzarra**

Aurrekontua hirutan egokitu dela argitu eban EAJk; "zuzenketa gehienak batu arren" onartu ez ziren Arau Fiskaletan oinarrituta landu ei zen lehenengoa, eta azkena Tokiko Inbertsinoen Estatu Fondeo dekretoagaitik. ■ A. Basauri

**Inbertsino nagusiak**

Karkabak	.....313.500 €
Eguzki-plakak eraikin publikoetan	.....120.000 €
Landako eskolako aterpea	.....66.000 €
Hainbat urtetarakoak	
<b>San Frantzisko eta Antso Estegizko urbanizazioa</b>	.....300.000 € (ia 1,1 milioi)
<b>Posta Bulego zaharra</b>	.....30.000 € (1,5 milioi)
<b>Tabirako igerilekuetako aldagelak</b>	.....59.000 € (159.000 €)
<b>Urki-Hegoalde eta Hegoalde-Montorreta</b>	.....310.000 € (ia 4,4 milioi)
<b>Zentro Zibikoa (San Fausto)</b>	.....530.000 € (4,5 milioi)
<b>Juan Itziarkoan arrapala mekanikoa (Merkaguneren baitan eskatu dira laguntzak)</b>	.....274.978 € (ia 1,3 milioi)
<b>Tabirako futbol-zelaiak</b>	.....30.000 € (3 milioi)

## IURRETA

### Inbertsinoek aurrekontuaren ia %64 hartuko dabe 2009an

Denera, 15,2 milioi euro batzen ditu udal aurrekontuak; inbertsino atalak, 9,7 milioi euro

Guztira, 15,2 milioi batzen dituen udal aurrekontuaren ia %64 inbertsino atalak hartuko dau: 9,7 milioi euro. Horren baitan, Larrakozelain kirolazpiegitura garatzeko 900.000 euro gorde ditu Udalak, futbol-zelai inguruan (86.200 metro koadro) lurra eskuratzeko. Santa Apoloniako industriagunearen (3,5 milioi) eta Bideondo zerrategiko bizitegi-gunearen garapena (2,3 milioi) dira beste ardatz nagusi bi;

**PSE-EE: "Udalak bere gain hartu ezin leiken ia sei milioi euroko zorra sortuko ez den bermerik ez deuskue emon"**

kooperazino sistemaz, lanak Udalak garatuko ditu, lurren ugazabek Bideondo zerrategia lekualdatuta, 88 etxebizitza aurreikusi ditue hor. "Udala da lurren erdia baino gehiagoren jabe, eta jagokun zatian 46 etxe tasatu eraiki gura doguz", Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. Babeseko "eskasiari"

aurre egin gura deusie: "Arau subsidiarioen berrikuspenagaz ezin dogu hasi, eta ez deuskue aldaketa puntualik onartuko unitate batzuk garatzeko direnean".

**"Bideragarritasun eza"**

PSE-EEK horren "bideragarritasun ekonomikoa" jarri dau zalantzan. "Bermerikez deuskue emon informazino eskatu arren, eta Udalak bere gain hartu ezin leiken ia sei milioiko zorra sortu leike". EAJren berbetan, hirubidertu egin diren larrialdi laguntzei, barriz, "gitxi-gegi" deritze sozialistek.

Totorikaguena ustez, "zorrik ez eta gaitasun ekonomiko garrantzitsua" dauka Udalak etorri leitekeenari aurre egiteko; "inbertsinoa egokitzeko aukera be badaukagu". Krisi egoeran "geratu ez eta aurrera egin behar da". EB-Berdeek horixe berretsi

**EAJk eta EB-Berdeek egin dabe alde, Borjak eta PSE-EEK kontra; PP abstenitu egin da**



Larrakozelain kiroldegia eraikitzekeo lurra eskuratzeko 900.000 euro gorde ditue. Judit Fernandez

eta "ausarta" izan behar dela dinoe. PP eta Fernando Borja zinegotziak inbertsino nagusiok zatika garatzeko aukera aitatu dabe; Larrakozelairi ez deritze "beharrezko".

Inbertsinoen artean Berezi-ko aisialdi-gunea (300.000 euro), Abadetxea (500.000 euro), ortu-ludi-

koen egitasmoa, Aita San Migel plaza urbanizatzea—jolas-gunea be bai— eta bidegorri proiektuak be jaso ditue. Laguntzak be batzen ditue EAJ eta EB-Berdeek onartutako kontuek: hezkuntzarako, gazteentzako alokairurako edo fatxada barrizteko. Herrigunea, komer-

tzioa eta enplegua bultzatzeko herrigunean kokatuko den enpresa proiekturako, eta, 'taxi-auzunea' zerbitzurako be lotu dabe dirua.

PP abstenitu eta Borja eta PSE-EEK kontra egin dabe; "funtsezko ez diren gastuak" kentzeko PSE-EEren 12 zuzenketak ez dira jaso. ■ A. B.



**OTXANDIO**

# 1,95 milioi euroko udal kontua onartu dabe

Urbiribil eta San Martin inguruak zaharbarritzera bideratutakoak dira inbertsino atal nagusiak

Udalaren oreka ekonomikoan eragin dau sarrera arruntak gitxitu izanak, marjinak murriztera inbertsinoetarako diru gitxiago izanik. Halan be, 1,95 milioi euro batzen dituen udal aurrekontua onartu dabe aho batez. Aritz Otxandiano alkatearen berbetan, aurrekontu "bideragarria" lotu dabe, "ahalegin handia" eginez, eta, ohi denez inbertsino atalik dirutsuenak laguntzei lotuta dagozela gaineratu dau.

Urbiribil (230.000) eta San Martin inguruak (125.000) zahar-

barrizteko erabiliko da diru gehien. Ingurugiro balioak indartu eta ondare kultural-naturala berreskuratzeko, hurrenez hurren.

**Ura eta energia**

Bestalde, emakumeen egoerari buruzko diagnostia egingo dabe, arlo horretan jorratu beharreko bidea zehazten laguntzeko. Ura-aren kudeaketa ikuspegi orokor eta integraletik lantzeko dirua be gorde dabe. Herriko aukera energetikoen aurre-diagnostia egitera, barriz, 6.000 euro bideratuko ditue, energia iturri barriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa bultzatuz.

Gastu arruntaren barruan, bestalde, gune berdeen mantenu-

**Emakumeen egoerari buruzko diagnostia egingo dabe, arlo horretan jorratu beharreko bidea zehazten laguntzeko**

**Lehiaketa publikoan ipinikoden gune berdeen mantenua eroateko atal barria sortu da**

**DURANGALDEA**

Kopla-kantu eta makila-hotsek lagunduta eskean urten eben Durangaldeko hainbat txoko eta bazterretan eguaztenean. Usadioari eutsiz, Santa Ageda bezperako hitzorduari eutsi deusie, besteak beste, Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren. Mallabian, barriz, bihar urtengo dabe. Martiriaren ohorez jarduten dabe koplatan, aterik ate, etxeke jaun-andrei diru edo mokadu eske.

**Esaterako, Elorrio, Abadiño, Durango, Berriz, Zaldibar eta Iurretan urten dabe; bihar daukie hitzordua Mallabian**

Mikel Deuna kultur elkartearen eskutik urten eben Iurretan, Aita San Migel plazatik; Abadiñon, barriz, Done Zezili abesbatzako kideek hartu eben Santa Ageda koplak zabaltzeko ardura, eta Zaldibarren Coral abesbatzak. Urtez urte egin daben lez, mesedetako misiolariaren komentu aurretik urtetan dabe Berrizen, eta Elorrioren Lagun Toki aurrean batu dira, Udalak, Iturritzoroko elkarteak eta Caritasek gonbidatuta. Otxandion eta Mañarian be urten ohi dabe.

Mallabian dogu hitzordua bihar, Mendibil eta Jasokunde abesbatzen eskutik. ■ A.B.

# Kopla-kantuak girotutako Santa Ageda bezpera

Usadioari eutsiz, kopla truke eskean jardun dabe Durangaldeko herrietan



Hainbat lagunek urten eben, eguazten iluntzean, Santa Ageda koplak abesten. Judit Fernandez

**MALLABIA**

## Orraittioren herri-bazkaria, hilaren 14an

Orraittio euskara elkarteak otsailaren 14an batzar orokorra egingo dau. Ondoren, Trabakugoikoa jatetxean bazkide zein euskararen laguntzako bazkaria antolatuko dau.

Orraittioren urteko batzar orokorra 11:30ean izango da, Kultur Etxeko aretoan. Bertan, 2008ko jardueren barri emongo dabe, eta 2009ko asmoak eztabaidatuko ditue.

**Bazkarirako txartelak**

Batzar Orokorra eta gero, 14:00etan, Trabakugoikoa jatetxean bazkaria egingo dabe. Menuak kroketak, entsalada (hotza edo epela), solomoa edo eskaloepa aukeran, postrea eta kafea ditu. Bazkarira euskararen lagun guztiak dagoz gonbidatu-

**Orraittioren urteko batzar orokorra 11:30ean hasiko da, Kultur Etxeko aretoan**

**Herri-bazkarirako txartelak Trabakugoikoan bertan edo Kultur Etxean alde aurretik erosi daitezke**

ta. Txartelak alde aurretik Kultur Etxean edo Trabakugoikoa jatetxean bertan 18 euroan erosi leitezke. Orraittioko bazkideek 16 euro ordainduko ditue.

**Erabilera sustatzea**

Orraittio 2005ean sortu zen, herrian euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Orduetik hona, Orraittiok Gaztainerre egunean eta Gabonetan ekitaldiak antolatu ditu. Kultur Hamabostaldian, Andra Marietan eta Urriko Jaietan egitarauari ekarpenak egin deusez. Gainera, berezko jarduerak be martxan ipini ditu: Mallabiko baselizak ezagutzeko ibilbidea, adibidez.

Azken batean, Orraittio euskararentzako esparru ludikoak berreskuratzeko lanean dabil.

■ Maria González

**Inbertsino nagusiak**

Urbiribil	230.000 €
San Martin	125.000 €
Seinalizazioa eta panel digitala plazan	120.000 €
Urtegi inguruko bidegorria	60.000 €
Gaztetxea	35.000 €
Buzoiak auzoetan	13.825 €
Diagnostia emakumeen egoerari buruz	12.000 €
Beka: Memoria historikoa	12.000 €
Uraren kudeaketa estrategia	12.000 €
Andikona plazako egitasmoa	12.000 €

rako atal barria (36.000) sortu dabe; lehiaketa publikoan jarriko dabe. Aitatzekoa da mantentzen urbanistikorako atalaghegi-tu dabela be (45.000 euro). ■ A.B.

**UNIBERTSITATEA BIZITZEKO PREST!**

**ATE IREKIAK**

etorriko zarela jakinarazi!

www.mondragon.edu/prest

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**

**OTSAILAK 7 - 11:00** larunbata **AULA MAGNA, ARRASATE-MONDRAGON**  
Tel.: 943 73 96 29 // bguerenun@eps.mondragon.edu

**OTSAILAK 26 - 17:30** osteguna **AULA MAGNA, ORDIZIA**  
Tel.: 943 88 00 62 // eurlia@goierreskola.org

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**OTSAILAK 12 - 18:00** osteguna **AULA MAGNA, OÑATI**  
Tel.: 943 71 80 09 // zgarate@etei.mondragon.edu

**OTSAILAK 21 - 10:00-13:00** larunbata **AULA MAGNA, IRUN**  
Tel.: 943 63 91 29 // iorritzabal@bidasoa.etei.mondragon.edu

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

**OTSAILAK 19 - 18:00** osteguna **AULA MAGNA, ESKORIATZA**  
Tel.: 943 71 41 57 // sareia@huhezi.mondragon.edu

ABADIÑO

# Gorabidek Atxarte egoitza zabaldu ebala 25 urte dira

Adimen urriko 69 egoiliar dituen egoitzaren urteurrena ospatu dabe



Eguaztenean egin ditue Atxarten urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Iban Gorriti

Adimen urriko pertsonen aldelan egiten dauen Gorabide elkarteak Astola auzoan daukan Atxarte egoitzan bizi dira 25 eta 75 urte bitartean daukiezen 69 erabiltzaile.

Eguazten honetan, euren zaintzaileekin tailerretan edo masajeak hartzen zegozela, instituzinoetako ordezkarien eta lagunen bisita jaso dabe, 25. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldian. Mende laurden honetan, egoitza eraikitzen hasi zireneko argazkiak biltzen dituen erakusketa inauguratu dabe, eta, egoitzan

zehar bisita gidatua izan da gero. Harrera hitzaldian, Gorabideko presidente Victor Iturburuk, Abadiñoako alkate Jose Luis Navarrok eta Aldundiko Gizarte Ekintzako sailburu Juan Maria Aburtok hartu dabe berba, eta orain 25 urte hain barritzaile eta aldi berean beharrezkoa zen egoitza hau zabaltzeko adimen urritasuna daukien familiek egindako lana goraiatu dabe, bolondresak eskertuz.

Gogoratu dabenez, adimen urriko pertsonen guraso talde batek Adimen Urrikoen Aldeko Bizkaiko Elkarte sortu eban

1962an eta ha izan zen orain Gorabide denaren hastapena. Zortzi urte geroago izendatu eben elkar-tea "herri onurakoa". Helburu nagusia gizarte arazoaz jabetuaraztea eta egoitzak sortzea zen hasikerako garai haretan. Egoiliarren eta euren senitartekoen bizikaltatea sustatzea da, gaur egun, Atxarteko eguneroko lana. ■ I.E.

**"Adimen urriko pertsonen eta euren etxeko bizi-kaltatea bermatzea dogu Atxarten eguneroko helburu nagusi"**

Ikobaltzeta zinegotzi jeltzaileak jakinarazo deuskunetz, herritarren eskari horixe izan dabe Udalean, eta berorri erantzunez bideratu ditue helduendako ingeles saioak. Asteon ekin deutsee 20 lagunek, talde bitan banatuta; hizkuntza ezagutzeari batzuek eta hobetzeari beste zenbaitzuek. Goizez talde batak eta arratsaldez besteak, Udaletxeko gela batean jarduten dabe 18 eta 60 urte bitarteko 20 lagunek. Herrian erroldatuta dagozeneri ikastaroa zelatan finantzatzen lagundu aztertzen dihardueela dinoe Udalean. ■ I.E.

MAÑARIA

## Helduendako ingeles eskolak bideratu ditue

Asteon hasi dira klaseak hartzen 20 mañariar

Azken urteetan herriko umeendako egin daben moduan, baina kasu honetan herriko helduei zuzenduta, ingeles ikastaroa bideratu dau Mañariko Udalak. Umeei eskolak emotera Durangotik etortzen den irakasle bera hartu dabe helduei irakastera etorri daiten.

**Herritarrengandik jaso ei dabe udal arduradunek nagusiendako ingeles eskolak bideratzeko eskaria**

GARAI

## Estatutuak berretsiko ditue Otea-Loran elkarteak

Bazkide izateko behin betiko baldintzak jasoko ditue, igaz onartutako aldaketak jasoz

Estatutu barrien azken berrespena egingo dau Otea-Loran elkarteak domekarako deitutako ez ohiko batzarrean. Bazkide izateko behin betiko baldintzak jasoko ditue bertan, igaz onartutako aldaketak jasoz: herrian gitxienez sei urtean erroldatuta egon behar dau bazkide izan gura dauenak, eta bost bazkideren bermea be beharko dau. Bestalde, 115 lagunera arteko itzarote-zerrenda osatzea be onartu dabe. Estatutu barriak igaz onartu zituen Otea-Loran elkarteak, Elkartearen Erroldan (Bilbon) jasoz. Orain azken idatzia berretsiko dabe, zuzendaritza batzordekoen berbetan.

**Araututa geldituko dira azken urteotan "balio formalik" izan ez daben bazkide izateko baldintzak**

Horretara, araututa geratuko dira azken urteotan "balio formalik" izan ez daben bazkide izateko baldintzak: 2006an estatutuak barriztean, zazpi urtean erroldatuta egotea onartu eben arren baldintza lez, erabakiak ez eban prozedura legala jarraitu; ez eben Elkartearen Erroldan jaso, "balio formal barik" itziz. Agerian geratu zen egoera 2007an urte bi

erroldatuta zeroazen herritar batek bazkide egitea eskatzean; 2005eko estatutuen arabera egin eban eskaria; bazkide egiteko baldintzarik ez zenean jasotzen.

**Hautatu beharrean**

Zuzendaritza Batzordea hautatu beharrean aurkitu zen: 2006ko erabakia aintzat hartu barik eskaria onartu edo erabakiari eutsi. Azken horri heldu eutsien, eta herritarrek prozedura judiziala abiatu eban. Adiskidetzeko saioan ez ziren ados jarri, eta urtarrean epaiketa egin eben, ebazpenak herritarren alde eginetz; Otea-Loranekoek apelatu egingo dabe Bizkaiko Auzitegian, igaz prozedura judiziala jarraitu eta 2006ko akordioari eustea gehiengoan onartu ebela gogoratuz.

Etzi, 12:00etan, deitutako ohiko batzarrean dena azalduko dabe, urteko ekintza plana eta aurrekontua onartu ezeze. Elkarte izaera 2005ean arautu arren, aurtun 25 urte dira Otea-Loran sortu zela. Lehenengo estatutuetan bazkide izateko baldintza erroldatuta egotea zen. ■ A.B.

**Elkartearen Erroldan jasotzeko zegozen estatutuak, eskaera batek agerian itzi ebanek**

BERRIZ

## Astelehenean jarriko dabe indarrean trafiko ordenantza

Arau-hauste oso larriek 600 eurorainoko isuna eta gida-baimena kentzea ekarri leikie

Udalbatzarrak igazko urte amaieran aho batez onartu eban Trafiko Zirkulazino Arautzeko Ordenantza, eta otsailean indarrean jartzea aurreikusitako. Esan eta egin: datorren astelehenean sartuko da indarrean.

Ordenantzak larritasunaren arabera banatzen ditu arau-haustea, eta, ondorioz, isunak. Arau-hauste arinak 90 eurorainoko isunak jaso leikez.

**Zallako APS enpresa arduratuko da gestioaz eta udaltzainak kontrolaz**

Ondoren, arau-hauste larriak dagoz. 300 euroraino heldu leitekeez isunez gainera, gidatzeko baimenaren etetea be ekarri leikie; hilabetetik hiru hilabetera, kasuaren arabera. Arau-hauste larritzat jotzen dira oinezkoen bidea gurutzatzeko lehen-tasuna ez errespetatzea, abiadura mugak gainditzea eta espaloietan aparkatzea.

Arau-hauste oso larriek 600 eurorainoko isunak jaso leikiez, eta gida-baimena etetea be bai; hilabetetik hirura. Multzo horretan dagoz baimendutako alkohol tasa gainditzea eta ausarkeriaz gidatzea, adibidez. ■ J.D.

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan saltsan.com

SANTI ESTANKOA  
Fray J. de Zumarraga, 4 Durango • Tel.: 94 620 39 93

# Gremioen gida

**Altzarien Zaharberritzea**

**Txingoka Zaharbarrikuntza**  
• Sitsaren tratamendua •

Altzariak eta zurezko osagai arkitektonikoak zaharberritzen ditugu

Tel.: 659 746 499 • Zornotza

**Elektrizitatea**

Electricidad DURANGO, S.Coop.

**ED** MUNTAIA ETA INSTALAKUNTZA  
ARGITERIA  
MANTENIMENDUA

Arañondo-torre, 6 DURANGO  
Tel.: 94 681 87 38 - Faxe: 94 603 25 26

**Elektronika**

**URBASA Elektronika**

SALMENTA ETA KONPONKETA • TB • SONUA • HIBIDOA • IRRAITA  
KOMUNIKAZIOA • ANTENA KOLEKTIBOAK • SATELITU BIDEZ • ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13  
Tel.: 94 681 33 03  
Durango

**Panasonic** 

**Iturgintza**

**Arriandi ITURGINTZA**

Klimatizazioa  
Kalefazioa  
Iturgintza  
Gasa

Arriandi, 10 - beheak, 3. atea  
Sakelekoa: 607 24 58 54  
Faxe: 94 681 61 58  
Iurreta

Baimendun instalatzailea

**Argiztapena**

**MARKIEGI**

Plateruen plaza 4, beheak  
48200 Durango  
Tel.: 94 620 35 20  
94 620 21 76  
Faxe: 94 681 56 95  
markiegi@markiegi.com

**Gas**

**CIAL-UME**  
gas likidoen banaketa-etxea, s.l.

**GAS INSTALAZIOAK ETXE OFIZIALA**

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

Iurreta, 7 IURRETA Komentu kalea, 2-A DURANGO  
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 02 50

**Mallabiena** 

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6  
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62  
mallabiena@mallabiena.com

**K21**

**Lorazaintza**

*Jardines Patxi Lonategiak*

Mantenua eta Diseinua  
Landaketa eta Inausketak  
Ureztatze sistemak  
Barrualde eta Kanpoaldea  
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086  
Faxe: 944 668 853 Patxi 696 463 085

**Eraikuntza**

**arlax**

ERAIKUNTZA  
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak berritzatu eta zaharberritzea  
Zurezko egiturak  
Barrualdea diseinatzea  
Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 • 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70  
DURANGO 605 77 03 57

**Estrebianga**

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK  
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA  
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

**Barne Dekorazioa**

**a-metz**  
(barne) diseinua  
Tel.: 600 267 373

**studio**  
(www.amez.com)

Ibaizabal auzunea 3 A, beheak • Durango

**HEMEN AGERTU**

**GURA BADOZU DEITU**

**94 621 79 02**

**Ubide**  
iturgintza

188 PK.  
48200 DURANGO  
94 603 05 06  
825 70 22 08  
ubide@euskaitel.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

ATXONDO

# Mediku Kontsultategia handitzeko proiektua

Urte honen barruan hasi gura ditue herriko mediku kontsultategiko lanak

**O**sakidetza Euskadiko Osasun Zerbitzuagaz hartu-emonetan dagozela azaldu deusku asteon Dabid Cobos alkateak. Udalak orain arte Mediku Kontsultategiazko izan dituen erantzukizunetan beharrezko aldaketak egitea dau Udalak helburu. Hartu-emon hori "behar beste arautua ez da egon", Cobosek nabarmentzen dauenez.

Ezker abertzaleko alkateak dinonez, azken urteetan Udalaren kargu joan dira berez Osakidetza-aren ardurapekoak behar leukien zenbait kostu eta ardura: Mediku Kontsultategiko harrera-gilearen

**Orain 100 metrokoa da Mediku Kontsultategia; lanak eginda 165 metro karratu baliagarri izango ditu**

**Lokalaren mantenuak eragindako gastuak bere gain hartu daizela eskatuko deutso Udalak Osakidetzari**

soldata eta Mediku Kontsultategiaren egoitzan sortzen diren zenbait gastu -lokalaren garbiketa eta elektrizitatea, esaterako- Udalak hartu izan ditu bere gain, eta Gobernu Taldearen aburuz ez leuke halan izan behar. Alkatearen berbetan, "erizainen eta medikuen soldaten arduradun egiten den moduan, harreragile postuari jagokon soldataz be ardura hartzea" eskatuko deusie.

Izan be, urteko kontuetan diru asko suposatzen dabe berez Udalarari ez jagokozen gastu horreek guztiek, Cobosek dinonez, eta horregaitik eskatuko deusala

Atxondoko Udalak Osakidetzari horreen ardura hartzea.

Hori baino lehenago, baina, asteon luzatu deusagun galderari erantzunnez Dabid Cobos alkateak dinonez, Osakidetzagaz Udalak hartutako konpromisoagaz aurrera egingo dabe: Euskadiko Osasun Zerbitzuak eskatu dauen moduan, orain 100 metro karratu inguru dituen Mediku Kontsultategia zabaltzeko egin beharreko lanak aurrera eroatea.

**Espazioa irabazteko**

Egoitza hori zabaltzeko lanak gidatuko dituen proiektua, dagoeneko, Osakidetzari erakutsi ei deusie eta osasun erakundeak bere ekarpenak egin ei ditu. Hurrengo zeregina lanak esleitu eta urte honetan lanak hasia izango da. Horretarako, orain Liburutegiak, Udal-artxiboak eta Postetxeak hartzen daben lekua baliatuko dabe, obren ondoren 165 metro karratu baliagarri izateko. ■ I.E.

IZURTZA

# Datorren asterako prest espero dabe Kontsultategia

Medikuaren Kontsultategian irisgarritasuna hobetzeko egin ditueen lanak bukatuta, lokala altzariz janztea bakarrik falta dela azaldu dau Muñoz alkateak. Horrenbestez, otsailaren bigarren astetik aurrera, azken asteetan izurtzarrak be Mañarian artatu dituen medikuak Izurtzako Kontsultategian eskainiko dabe zerbitzua. Lan horrekin amaitutzat emongo ditue Mediku Kontsultategia mugikortasun arazoak ditueen herriarrendako moldatzeko lanak; arrapala ipini eben sarreraren lehenengo, eta barrukaldeko komunak eta atea zabaltu ditue orain. ■ I.E.

ZALDIBAR

# Kale izendegi barria ezartzen hasi dira asteon

Zaldibarko Udala kale izendegiko plaka guztiak aldatzen hasi da aste honetan. Izan be, igazko maiatzaren 28an udalbatzarrean aho batez onartu eben lan horri ekitea Udalean ordezkari daben alderdi guztiek. Asteon egin dabe kaleen izenak daroezen plaken aldaketa. Guztira, 9.000 euroko aurrekontua daukie aldaketa egiteko aurrera eroandako lanek.

Modu berean egin eben hondarrezko Olazar futbol-zelaiaren ordezkari den belar artifizialeko futbol-zelaiari Solobarria izena ipintzerakoan be.

Kasu guztietan, Alberto Erratik egindako toponimia ikerketaren arabera izendatuak izan dira Zaldibarko hainbat kale, aitatutako udalbatzarrean "kale izendegia euskaraz bakarrik izan zeiten erabaki eban-eta udalbatzarrak", azaldu dabenez. ■ I.E.

**Guztira, 9.000 euroko aurrekontua daukie kale izendegia aldatzeko asteon burututako lanek**

# Eitzagako auzo-etxearen inaugurazioa



Joan zen zapatu eguerdian egin eben inaugurazio ekitaldia. Judit Fernandez

Urtarrilaren 31n egin eben Eitzagako auzo-etxe barriaren inaugurazioa

Eitzaga auzoan, bere garaian eskola izandako eraikinak hartzen dauen auzo-etxearen barrikuntza lanak -sei hilabete iraun dabe- amaitutzat emon eta inaugurazio ekitaldia egin eben joan zen zapatu eguerdian bertaratu-tako udal ordezkari eta auzotarrak. Auzo-etxea zabaltzeko ekitaldi ofizialaren ondoren bertan batu ziren bazkaltzera barriztelanen amaiera ospatzera gerturatu-tako herritarrek.

**Auzo-etxea inauguratzeko ekitaldi ofizialaren ostean bertan bazkaltzera batu ziren auzotarrak**

Hilabeteetan jardun dabe Udalak eta auzo elkarteak berak be, eskola izandako eraikina barrizteko lanetan, eta guztira 108.000 euroko aurrekontua izan dabe egindako lanek. Besteak beste, estalkia eta komunak barriztu eta aroztegi lanak be egin ditue. Azken 30 urteetan erabili izan daben auzotarren ardura izan da elkarterako altzariak egokitzea; bestelako lanak egitea Udalaren ardura izan da.

Jakinarazo dabenez, Goierrri auzoko elkartean egin eben moduan, elkartekide legez sartuko da Zaldibarko Udala. ■ I.E.

**Guztira, 108.000 euroko aurrekontua izan dabe Eitzagako auzo-etxean egindako barrikuntzek**

**MINKENDU**  
 MASAJEA, AKUPUNTURA  
 (orratz gabe ere) ETA  
 MINAREN AURKAKO  
 TERAPIAK

Alberto Murua  
 Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO  
 tf. 662 270 770

• Oinetako patologiak  
 • Neurri egindako plantillak  
 • Oinetako beste hainbat gaitz

Podología 100  
 Herriko gudarien kalea, 10 - behea  
 48200 DURANGO  
 Tel./Faxa: 94 621 54 04



ELORRIO

# Herri-ondarea ezagutzera emongo daben ibilbideak

Herrigunean zein San Agustin eta Zenita auzoetan zehar prestatuko ditue



Herriguneko eraikin esanguratsuenen barri emongo dabe ibilbideetako batean.

**E**lorrioko historia, historia horren ondare diren eraikinak eta monumentuak zein elorriarren bilakaera soziala ezagutzera emoteko 'Ondasun Ibilbideak' izenako ekimena lantzen dabil Udala. Hiru ibilbide aurreikusitakoak dira: herrigunean zeharrek (udarako prest gura dabe), San Agustin auzotik hasiko dena eta Zenitako berezitasunak erakutsiko dituen.

Ibilbideen jomuga diren eraikinen edo ondasunen ondoan panel informatiboak jarriko ditue. Horrez gainera, herrigunekoan lurrean harlauzak ipiniko ditue

norabidea markatuz. Gura dauenak audiogiak eskuragarri izango ditu. Audiogiak ondasunen gaineko informazioa hizkuntza askotan jasoko daben aparailuak dira. Horrela, turistek datuak ingelesez edo jatorrizko hizkuntzan eskaini eta tokian tokiko informazioa osatua emongo dabe.

**Informazio entretenigarria**  
Herriguneko ibilbidea alde zaharretik abiatuko da. Helburua ez da eraikinen gaineko informazio zurruna emotea; sasoiak sasoiak testuingurua be ezagutzera emon gura dabe; gertaerak, historia, bitxi-

keriak... Beste ibilbide biak bigarren fase batean osatuko ditue. San Agustinen hasiko denak, besteak beste, eliza, teileria -berreskuratuz gero- Kurutze Berri eta erromatar bidea ezagutzeko aukera emongo dau. Ibilbide hori aukeratu dabe Elorrio gaur denaren hazia han erne zelako.

**Zenita inguruak**  
Zenita auzoa entitate independente baten eredu ona da, bere ermita, errota, burdinola, idi-probak egiteko zelaia eta abarrekin. Auzoa zelan sortu eta garatu zen ezagutu ahalko da. ■ J.D.

## Berbalagun berriz, hiru urte eta gero

Hiru urte geldirik egon ondoren, barriro ekingo deusie Berbalagun proiektuari Elorrioren. 28 lagunek emon dabe izena, sei talde sortuz. Oraindino emon leiteke izena Elorrioko Abizari euskaltegian edo 94 658 21 11 telefonoan.

Taldeak astelehenean goizetan eta martitzen, eguen eta bariku arratsaldetan batzen dira. Bakotzak gura dauen ordutegia aukeratu leike. Udala egingo da gastuen kargu eta ekimenean parte hartzea doakoa da.



J.Fernandez

ABADIÑO

## Udalak joan zen asteko tratu txar kasua gaitzetsi dau

Bariku goizaldean 27 urteko gazte bat atxilotu eben, bere bikotekide ohiari tratu txarrak eragin eta sexu abusuak egitea leporatuta. Biktimak salatu dauenez, tratu txarrak joan zen martitzenean eta eguaztenean gertatu ziren, Abadiñoko etxebizitzan batean. Bikotea banatze tramiteetan dago.

Abadiñoko Udalak gertaera hori idatzi baten bitartez gaitzetsi gura izan dau. Herritarrei dei egin deutse "horrelako biolentzia matxistarik ez onartzeko, horreek kondenatzeko eta biktima diren emakumeei euren elkartasuna adierazteko".

## 'Auzorik auzo' arrakastatsua antolatu dau Hamabi Harrik

Gerediagako Hamabi Harri auzo elkarteak joan zen domekan San Blas eta egitarauaren barruan antolatutako 'Auzorik auzo' ibilbideak aurreikuspen guztiak gaintu zituen. Gerediagako bazeluzan prestatutako irteera puntuan 250 lagun baino gehiagok izena emon eben. "Urterik urte geroago eta jentek gehiagok ibilbidean parte hartzen dauen arren, ez genduen itzaroten hainbeste lagun elkartzea". Gogorazoz gura izan dabeenez, parte-hartzaileen artean zotz egindako mendiko makila Jon Mendizabalentzat izango da.

IURRETA

## Usurpazioagaitiko prozedura artxibatzea erabaki dabe



Astelehenean Bilboko adin txikikoen epaitegiak kargu barik itzi eban "usurpazio delitua" egotzita deitutako Iurretako gaztea. Ustez frontoi alboko etxola usurpatzea egotzen eutsien. Epaitegi hartutako azken erabaki horregaz, prozedura guztiz artxibatuta gelditu da. Izan be, aurretik Gazte Asanbladako 10 kidek Durangoko Auzitegian deklaratu eben, horreek be "usurpazio delitua" egotzita. Kasu bereko hamar gazte horreen prozedura aurretik artxibatu eben arren adin txikiko gaztea "epaitu gura izana" salatu gura izan dau Gazte Asanbladak.

DURANGALDEA

## Gararen ospakizuna

Gara egunkariak sortu zeneko 10. urteurrena ospatu eban Landako erakustazokan. Igor Elortzaren eta Jon Maiaren bertsoen ondorekin, bideo emonaldia eskaini eben. Ondoren, Josu Juaristi (irudietan) Garako gaur egungo zuzendariak berba batzuk zuzendu eutsezen bertaratu zirenei. Ekitaldian zehar, Donostiako erredakzioagaz zuzeneko konexioa be egin eben.



J.F.



# ABADIÑO SAN BLASETAN.. 09





# BERBAZ >

## “.eus bitarteko bat gehiago izango da euskal kulturaren sustapenean”

PuntuEus proiektuaren bultzatzaileek Internetean '.eus' domeinua sortzearen aldeko apustua egin dute.



Iban Gorriti

**Iratxe Esnaola •**

**PuntuEus proiektuaren koordintzailea**

- Informatika ingeniaria
- 27 urte

“.eus domeinuaren bidez euskarazko Internetari izena jarri nahi diogu”

**N**abigatzaileak, Youtube, Wikipedia eta blogosfera aktiboa euskaraz ditugu Interneten. Izanari izena jarri guran, PuntuEus elkarteak euskal domeinua jendaurrean aurkeztu du Durangon. Ekimen horri zabal-kundea emateko Iratxe Esnaolak buru-belarri dihardu lanean.

*Zelan eman ditu lehen urratsak PuntuEus elkarteak?*

PuntuEusen lehen inflexio puntua bere eratze propioa zen: hainbat eremutako zenbait elkarte bildu eta elkarteak ofizialki eratzea zen lehen lana. Ondoren, eremu horiek zehaztu genituen, euskara eta Internet uztartzeko helburuarekin: Euskalgintza, Hezkuntza eta Internet eta komunikazioa. Hortik aurrera, eremu bakoitzeko elkarte esanguratsuak hautatu eta proiektuaren inguruan bildu ginen. Elkarrikeria horietatik sortu zen urtarrila bukaeran PuntuEus elkarteak. Hori izan da lehen urratsa, baina orain PuntuEus elkarteak zabaltzea ezinbestekoa da.

*Zer helburu dauka elkarteak?*

PuntuEus elkarteak helburu nagusi bakarra du: '.eus' domeinua lortzea. Helburu nagusi hori, ondoren, euskararen eta euskal kulturaren sustapenean bitarteko bat gehiago izango da. Horixe da geure asmoa.

*Orain arte zelako babesa jaso duzue?*

Proiektu honen ezaugarri nagusia aniztasuna da, baita atxikimenduen arloan ere. Proiektuan guztientzat dago lekua, eta bakoitzak bere ekarpena egin dezake. Elkarte eta erakundeek PuntuEus elkartearen parte hartuz, instituzioek proiektuak ezinbesteko izango duen diru-laguntza eskainiz... Azkenengo atxikimenduak, berriz, pertsonalak izan dira, webgunearen bitartez egin daitekeena.

*Zer garrantzi dauka ikur edo sinbolo hau sortzeak?*

Bizitzan ikur edo sinboloak ezinbestekoak dira. Ikurrek identifikatu egiten gaituzte, eta gu geu identifikatzen gara beraiekin. Interneten ere, berdin. Ikur horrek, '.eus' domeinuak, euskarazko Internetari

izena jarri nahi dio. Existitzen den Interneteko Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitateari (EEKK, hemendik aurrera), izanari, izena jarri nahi dio.

*Ekimena aurkeztu duzue. Zer harrera izan du?*

Erantzuna izugarria izan da. Baina harrera ona izateaz harago, oso aktiboa eta parte-hartzailea izan da. Erabiltzaileek, beraien aldetik, mezukateak sortu dituzte. EEKKren aktibotasuna eta konpromisoa agerian gelditu dira.

*Atxikimendu gehiago lortzeko beste ekimen batzuk antolatzeko asmorik badaukazue?*

Gure lehen ekimena, PuntuEus elkartearen aurkezpena izan da. Gerora etorriko dira guk antolatutako beste ekimen batzuk, eta, ziur aski, baita erabiltzaileen aldetik sortuko direnak ere.

*Zein da jarraitu beharreko bidea '.eus' sortzeko?*

'.eus' domeinua EEKKren domeinua izango da. Komunitateak berak eskatu behar du eta, beraz, lehen urratsa komunitate hori artikulatu eta forma ematea da. Hori da PuntuEus elkartearen funtsa, EEKKren ordezkari izatea, komunitatearen izenean '.eus' domeinua lortzeko eskaria aurkezteko. Ordezkari izaera horrexegatik esaten dugu, hain zuzen ere, PuntuEus elkarteak

“Euskal kulturaren komunitatean proiektuak harrera bikaina izan du”

EEKK modu esanguratsuan ordezkatu behar duela. Hori horrela, elkartearen etengabeko zabaltzea da bigarren urratsa. Horrekin batera, ICANNek, eskaria jaso eta ebaluatuko duen erakundeak, dokumentu bat eta ebaluazio gastuak ordaintzeko diru kopuru bat eskatuko digu. Dokumentu hori ondo baino hobeto betetzea izango da, beraz, lorpena bitarteko azkenengo urratsa.

*‘.cat’ sortzeko proiektua jarritzuten martxan Katalunian. PuntuEus-ek antzeko proiektua proposatzen du?*

Zalantzarik gabe, '.cat' izan zen hizkuntza eta kulturen domeinu izaera definitu zue-na. '.cat' aurrekaria baino gehiago da, domeinuak hizkuntza eta kultura komunitate txikien ikusgarritasuna lortzeko tresna eraginkor bilakatu baititu. Beraz, eskuetan dugun proiektuak '.cat'-en bide berbera egingo du. ■ Jone Guenetxea

# EKONOMIA<sup>></sup>

## > DURANGO

### 1.500 bildots komertzializatu ditue Bizkaiko Bildotsa izenez

Bizkaiko Bildotsa goi mailako sukaldaritzan sartu da, Bizkaiko Bildotsaren Kontseiluak iragarritako salmentak gaintuz. Halan jakin eragin dau Erralde hiltegiak. Dagoeneko, 1.500 bildots komertzializatu ei ditue Bizkaiko Bildots lez, "igaz data honeetan merkaturatuta zegoena bibidertuz".

Erralden merkaturatutako Bizkaiko Bildotsak dira Euskal Herrian eta Espainian artzainari gehien ordaintzen jakozenak, gogoratu dabenez: "Merkatuan egon leitekezen bildots onenak komertzializatzea lortu dogu. Harakin onenak eta goi mailako sukaldaritzak gugaz lan egitea, hiltegiak jorratzen dauen selekzio—parametro organoleptikoak aintzat hartuz— eta ikuskapen zorrotzen ondorio da". ■ A.B.

## > ZORNOTZA

### Sarrio Papel eta Celulosarako mahai propioa berretsi dabe

Sarrio Papel eta Celulosako enplegu-erregulazino espedientearen negoziatzinorako mahai zehatza sortzearen alde dagoela berretsi dau FIA-UGTk, "Torraspapelengandik berezirik enpresa eta espedienteak direlako". Zornotzako lantokia ixteko eta 70 lanpostu desagertzeko "arrazoi ekonomiko, tekniko eta antolaketakorik" ez dagoela dinoe, eta espedientearen helburua "erabaki estrategiko baten barruan" dagoela. 2007an, ikuskatutako azken ekitaldian, enpresak zortzi milioi euroko etekinak lortu zituela aitatu dabe, eta zuzendaritzak "alternatibak aurkeztuz negoziatzin zabalik" ez dauela bideratu. ■ A.B.

## > DURANGALDEA



Dinalot eta Mafisan aurkeztu ditue enplegu-erregulazino espedienteak. I.Gorriti

## Kaleratze "traumatikoen" kontra protestak hasi ditue

Abadiñoko Dinalot-en urten dabe kalera, Berrizko Mafisan eta Mallabiko Mecánicas Mallabi enpresan ez eze; hirurak Alfa taldekoak, Durangaldean

Langileok gure lanpostuen defentsan zintin pankartari eutsiz, elkarretaratzea egin eben, astelehenean, Abadiñoko Dinalot enpresako langileek. Bardin egin eben Berrizko Mafisa eta Mallabiko Mecánicas Mallabikoek.

Durangaldeko Alfa taldeko enpresak dira hirurak, eta, Dinalot eta Mafisan enplegu-erregulazino espedienteak aurkeztuz enpresa-taldeak hartutako jarrera salatu gura izan dabe; Gipuzkoako Torrekoa, Gol eta Microfusion enpresetan be aurkeztu ditue. Enpresak "kaleratze traumatikorik" ez gauzatzeko konpromisoa hartu daian aldarrikatzen dabe, besteak beste, langileek. LAB sindikatuak nabarmendu dauenez, "ezelan be ez da erregulazino espedienterik" adostuko: "Baina, Enplegu Delegaritzak onartuz gero, beharginen ordez-kari lez konpromiso eta berme batzuk segurtatu behar doguz. Langilearen onarpen bako kale-ratzerik ez egotea segurtatzea da garrantzitsua".

Enpresak, baina, ez ei dau konpromiso hori hartu gura. Kaleratzerik planteatu ez den arren, LABen ustez, "pentsatu leiteke epe ertainera kaleratzeak egon leitekezela". Eibarren manifestazioa deitu da gaur 19:00etan. ■ A.B.

Elkarretaratzeak egin zitueen enpresen aurrean astelehenean

Alfa taldeak enplegu-erregulazino espedienteak aurkeztuz hartutako jarrera salatu gura dabe

## ■ kolaborazinoa



Augusto Uriarte Behargintza

### Nire semeak ez daki

Diotenez, umeek aurrez aurre esaten dute egia. Hori dela-eta, lehengo egunean nire semeari galdetu nion zer egin dezakegun munduko egoera ekonomiko txarra konpontzeko. Normalean luze berba egiten du azalpenak ematean, batez ere Koikilik sarturiko golari buruz ari denean, baina oraingoan hauxe baino ez zidan esan: "Ez dakit".

Egun berean Angela Merkelen bost aholkularietako bati adierazpen bat entzun nion. Hark onartzen zuenez, ez zekiten zer egin, eta Alemaniako Gobernu horrexegatik ez ei dago bankuei dirua emateko prest. Ez dakitenez hori ona izango ote den, ez dute egiten.

Nik "insolbentetzat" jotzen dut nire burua, batez ere, hirugarren fasera igaro garetik. Lehenengoa emaitza ekonomiko positiboaren fasea izan zen; bigarrenean konfidantza faltaz eta beldurraz aritu zitzaizkigun; eta orain fedea eskatzen digute. Zerengan? Norengan? Begibistakoa da kultura judeokristauak erro sakonak dituela gizarte neoliberal honetan, eta azken 2.000 urteetan bezala jokatzin jarraitzen dute. Zer egin eta zer esan ez zekitenean fedean babesteko aholkatzen zuten, eta orain ere berdin.

### Nazioarteko Diru Funtseko lehendakaria izan liteke nire semea

Badakit honek ez dituela euren bizimodu dirudunduek urdurituko, baina autoritate finantzario eta politikoei euren gaitik lotsa sentitzen dudala esan behar diet. Kirten hutsak direla eta harria lantzen jarriko nituzkeela, aurreikuspenetan asmatu ez dutelako eta ez direlako gai arazo konpontzeko.

Hau guztia ez da izango nire terapiarako artikulatu bat baino, baina badakit Alfonsok arazoia emango didala. Kontsolatu ninteke pentsatuz nire semea Nazioarteko Diru Funtseko lehendakaria izan litekeela, egungo agintariek beste baitaki eta haien mailan baitago. Gainera, bera balitz lehendakari, ederto pasatuko lukete han.

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
48215 IURRETA (Bizkaia)  
Tel.: 946 816 673  
Faxa: 946 817 636  
construcciones@zarateyexpe.biz

**EXCAVACIONES JON**

NOTA GUZTI TARGO INDUSTRIAL HONDAKINUEGIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PAGUEBARRIO, 10 • 48960 • 48960 MALLABIA  
Tel: 946 17 20 24 • 48960 MALLABIA

# KULTURA<sup>></sup>



Judit Fernandez

## KONTU KONTALARIAK >

# Munduko ahotsak ume eta helduen irudimenerako

**H**aurrentzako ipuin kontaketa saioa izan zen lehenengo Liburutegian: Virginia Imaz ipuin kontalari eta antzezleak *Haserretzen zen printzesa* ekarri zuen. Arnasa hartzea beste behar duela ipuinak kontatzea dio Imazek, eta 1984an lanbide bihurtu zuen kontatzea.

Beste batzuei entzundakoak, berak asmatutakoak edo oinarri erreal bat dutenak kontatzen ditu Virginia Imazek. Guztiak, baina, entzuterakoan edo kontatzerakoan barnean zirrararen bat sortu dioten ipuinak. Horrela egin du Durangoko Liburutegiko saioan ere; pentsarazi duena, edo barre ragin diona edo entretenigarri

izan zaiona entzulegoarekin konpartitu. Ipuinek balore oso positiboak transmititzeko gaitasuna dutela eta, umeentzako bakarrik ez, eguneroko bizimoduaren joanean helduek ahaztuta, edo, alboratuta behintzat, dituzten baloreak errekuperatzeko modua dela uste dute kontalariak ipuinak elkarri kontatzea, munduko ahotsak.

Horrela, umeentzako saioaren ondoren izan da Mercedes Carrion antzezle, idazle eta kontalari perurtarraren ahotsetik helduak entzule izan dituen saioa ere Durangoko Liburutegian. Antzerkiaren, bere amamagandik ikasitako kontu zein istorioen eta magiaren uztarketatik sortutako ikuskizuna eskaini zuen Liburutegian. ■ I.E.

## 12 > Arteari buruzko ikastaroak

Atzo izan zen Durangoko Museoko arteari buruzko ikastaroen lehenengo saioa: Oteiza, Chillida eta Basterretxea dira aurten ardatz.



## 13 > 'Arratseko meditazioak'

Olerki bilduma da Helsinkin lan egin eta bizi den Iñaki Larrea zornotzarrak Internetean argitara eman duen *Arratseko meditazioak*.

ARTEA > HITZALDI ZIKLOA

# Euskal arteaz: Oteiza, Chillida eta Basterretxea zutabe

XX. mendeko euskal artera hurreratzeko aukera otsaileko hiru hitzalditan

Atzo izan zen Durangoko Museoa seigarren urtez hartuko duen 'Artearen ezagupidea' hitzaldi zikloaren estreineko hitzordua, eta Jorge Oteiza eskultorea izan zen lehenengo hitzaldiaren ardatza: *Jorge Oteiza. Visionario, esteta y vanguardista* izenburuko hitzaldia eskaini zuen Euskal Herriko Unibertsitateko arte eskultura irakasle den Ana Arnaizek.

1908an Orion jaio eta 2003an hil zen eskultore handiaren arkitectura alorreko lanen inguruan duen ezagutza sakona izan du Arnaizek hitzaldiaren gidari, baina, Oteiza bere osotasunean hartzeko saiakera osatu du.

## Chillida, semearen ahotan

Arteari buruzko hitzaldion antolatzailearen, Aitor Aurrekoetxea EHUKo filosofia irakaslearen, berbetan, "omenaldi xumea" eskaini nahi diete lehenengo mailako hiru euskal artistari, eta, esan bezala, otsaileko hiru egunetan hitzaldiak izango dira horretarako. Hurrengo hitzaldia, otsailaren 19an Eduardo Chillidaren seme Luis Chillidak eskainiko du, Durangoko Arte eta Historia Museoan, 19:30etatik aurrera. Aitararen lana biltzen duen Hernaniko Chillida Leku museoko zuzendaria da gaur egun Luis Chillida.

Eduardo Chillidaren lan artistikoa azaltzeaz gainera, aitarekin izandako pasarteak ere konpartituko ditu Luis Chillidak, *Eduardo Chillida y la poética del límite* deitu duen berbaldian. 1977an Donostiako badiaren muturrean *Haizearen Orrazia* eskultur lana

Jorge Oteizaren lanari buruzko hitzaldia izanda lehenengo, atzo



egin zuen eta 2002an hil zen eskultorearengana gerturatzeko ezin aukera aproposagoa, beraz, semearen berbek otsailaren 19ko hitzaldian gidatuko dutena.

Hiru hitzaldietan azkena Nestor Basterretxea bermeotarraren lanaren inguruko hitzaldia izango da: EHUKo estetika irakasle den Fernando Golvanok gidatuko du *Nestor Basterretxea. Una travesía poliédrica* izeneko hitzaldia.

Azken hamarkadetakoa euskal artean nabarmendu diren hiru sortzaileen lana Durangon ezagutzeko aukera dugu aurtengo zikloak eskaintzen diguna, orain lau harmarkada 'Gaur' egitasmoa sortu zuten artistena. ■I.E.

XX. mendeko hiru sortzaile euskaldun omenduko dituzte

Luis Chillida etorriko da otsailaren 19an, aitaren lanaz berbaldia eskaintzera

## ANTZERKIA > OMENALDIA

Urtarrilean zehar San Agustin kulturgunean Geroa antzerki taldea izan zena gogoratzeko antolatutako omenaldiaren harira antolatutako antzezlaren azkenengo emanaldia izan zen iragan domekan, 80 ikusle inguru batu zituen Karmakros antzerki taldearen albo irudiko *Abraham y Samuel*.

Geroa osatu zuten ehun lagun inguru batuko dira bihar San Agustin kulturgunean

besteak beste, Madril eta Sevilla aldean antzerki zuzendari edo antzezle moduan lanean edo antzokiak kudeatzen jarduten duten eta iraun zuen urteetan Geroa antzerki taldeko partaide izan ziren guztiak. Ehun lagun inguru elkartuko dira San Agustin kulturguneko bukaera ekitaldira. Poesia eta argazki emanaldia izango da, eta Geroa antzerki taldean euren pasio eta ametsa zen antzerkiak elkartu zituen lagunekin egoteko aukera izango dute.

### Sentsazio oso positiboa

Zapatuko ekitaldiarekin eta Geroaren ibilerak biltzen dituen erakusketaren itxierarekin emango dute amaitutzat 30 urte iraun zuen eta antzerkigintzak eskualdean izan duen proiekturik arrakastuenera egindako omenaldia.

Lehenengo aldia izan da gisa honetako omenaldi bat antolatzen dutena San Agustin kulturgunean, eta, Arrazolaren ahotik jaso dugunez, bai ikusleen bai Geroako kideen partetik jaso duten erantzuna oso ona izan da; merezi izan omen du esfortzuak. ■I.E.

Poesia eta argazki emanaldiak izango dira omenaldia borobiltzeko

Dena den, oraindik ere, otsailaren 7a arte, arratsalde zabalik izango da San Agustin kulturguneko sarreran hainbat bisitari jaso dituen erakusketa. Azken egunak dituzue, beraz, Durangon izan den antzerki talde profesional bakoarraren omenez bildutako argazki eta askotariko materialak batu dituen erakusketa interesgarria ikusteko. Kulturguneko kudeatzaile Arantza Arrazolak aurreratu duenez, behin erakusketa bukatuta, material horiek guztiak San Agustinen izango dira aurrerantzean ere, Geroaren artxiboan.

Hain zuzen, zapatu honetan, otsailaren 7an, Durangoko San Agustin kulturgunera bilduko dira,

## GEURE DURANGALDEA



### Solozabal Zaldibarren

Angel Zelaieta Idazlea

Solozabal toki-izenarekin batera, Solozabal be agertu ohi da XVIII. gizaldiko fogerezinoetan, Zaldua, Bermeo, Abadiño eta Markiñan. Solu(m) latinetikako iturria ei dauka lehen zatiak. Zenbaiten ustez, erromanikoa ei da, eta "zoru" zaharragoa ote litzatekeen dagoz.

Dena dela, 1976ko fogerezinoetan Solozabal de Yuso (Behekoa) eta Solozabal de Suso (Goikoa) agertzen dira Zalduan, eta deitura horixe gelditu da bizirik Bizkaia aldean.

Zaldua herri-deitura zaharra be aldatu egin da, Zaldibar deitura barriak "ezabatu" egin dau-eta aurretiaz zeukana. Fogerezinoetan "*Zaldibar, (la casa junto a la torre caída de)*" dator 1745ekoan, eta "*Zaldibar (la torre de)*" 1704koan.

Aldaketa 1932an gertatu zen, Feliz Urizar Aranzibia alkate zela, jarraiko arrazoi bi honeengaitik. Zaldibar deituriko hori Peñafloredako Kondeak erosi eta inguru horretan bainu-etxea eraiki eban 1844an. Geroago, haren loba Manuel Maria Gortazarren eskuetara heldu zen erakina, eta gaixo-etxe bihurtu ondoren Bizkaiko Diputazioa egin zen beronen jabe.

Horrez gainera, Bilbotik Donostiarako trenbidearen geltokia be inguru honetan kokatzean, jente gehiagok zion Zaldibar Zaldua baino. (Bilbon be jente gehiagok Atxuri zinola-eta, trenbide bereko geltokia bertan zegoelako Ibeni deitura zaharragoaren gainetik jarri da).

Zaldua honen jatorria be latinezko saltu(m) ei da, eta, segurutik, baita Zaldibar honena be.

Heraldistek dinoskuenez, hasierako Solozabal horretarikoren batek armarrria ei zeukan, "*Quinque honorata trifoliis*" zinona; hau da, "*Bost hirukoitzez ederretatua*". Izan be, armariaren lau ertzetan hirukotz bana dakar, eta erdi-erdian bosgarrena.

# Geroatik igarotako partaide guztiak antzokian elkartuta

Zapatuan bilduko dira San Agustin kulturgunean Geroa osatu zutenak



Judit Fernandez

LITERATURA > ELKARRIZKETA

# “Liburu bat osatutzat emotea zaila da; beti dago kendu edo gehitu leitekeen zeozer”

‘Arratseko meditazioak’ poema bilduma argitaratu dau Interneten Helsinkin bizi den **Iñaki Larrea** idazle zornotzarrak. Olerkigintzari buruz egin deusku berba.

**Zure lehenengo poema liburua argitaratu dozu. Zergaitik liburua eta zergaitik poemak?**

Ez dakit ondo zergaitik. Kontua da azken hamarkada honetan bildutako meditazioek poema itxura hartu dabela, eta, apurka-apurka poemak liburu itxura hartzen zebilzela ikustean, orduan esan dot: "Orain!". Gatxa da poema bilduma bat osatuta dagoela erabakitzea. Ni neu oso perfektinozalea naz, eta beti joan gura dot koska bat harago; beti kendu, jarri, aldatu gura izaten dot zeozer, existitzen ez den perfektinoaren bila. Baina liburua osatzeko unea zela sentitu dot.

“Poemak euskaraz idatzi arren, atalen tituluak suomieraz (finlandieraz) dagoz”

**Zenbat poema batu dozu?**

Hiru ataletan banatu dot liburua, eta atal bakotzak hamahiru poema daukaz. Denera, hogeita hemeretzi dira, luzera ezberdinekoak. Poemak euskaraz idatzi arren, atalen izenburuak suomieraz (finlandieraz) jarri ditut: "ilta", "hämärä" eta "yö"; arratsaldea, ilunabarra eta gaua esan gura dabe.

“Finlandiara etorri nintzenetik garrantzia berezia hartu dau niretzako arratsak”

**‘Arratseko meditazioak’ da liburua izenburua. Hausnarketatik sortutako poemak dira bildumakoak?**

Aitzin-solasean dinodan moduan, arratsak badauka geure baitara biltzen gaituen zeozer. Eguna gau bihurtzen deneko tarte horrek gogoetarako abagunea emon deust beti. Finlandiara bizitzera etorri nintzenetik, gainera, garrantzia berezia hartu dau niretzat arratsak, metaforikoki be bai. Izan be, lau hilabete irauten dau hemen neguak, eta argia ez dogu lagun izaten. Arrazoia behar dogu bizitzeko, zalantzarik barik, baina batzuetan bizitzeko oztopo izatera ailegatu leiteke. Gainera, poesia pentsamendu logi-

koaren etsaia dela defendatzen dot, urrinago ailegatzen lagun-tzen dauen pentsamendua.

**Zer gai lantzen dozu?**

Gai askotarikoak lantzen ditut. Gai klasikoak eta, halan be, erabat garaikideak direnak ditut gustukoak; bizitzaren gorazarrea, heriotzaren samina, halako mistizismo gizatiarraren aldarri bat... Euskal poesiagintzan hamarkada batzuetatik hona datorren korrontebategaz egiten dabe bat nire poemek, zalantzarik barik.

**Lizardi, Artze eta Juaristi aipatzen dozu kuttunen artean. Zer edan dozu bakotxagandik?**

Ez dakit zehazki zer jaso dodan bakotxagandik. Hirurengandik, hitza eta hausnarketagazko maitasuna eta poesiagazko errespetua. Hiru izen horreek aipatzen ditut nire erreferentzia literarioak izateaz gainera, gurean idazle kanonikoak direlako, mundu guztiak onartu eta aintzat hartuak. Izen gazteak be emon neikezen, baina, ez da oso elegantea, beti izten dozulako nonor, injustuki, kanpoan.

“Arrazoia beharrezko jaku, baina bizitzeko oztopo be bilakatu leiteke sarritan”

**Liburua Euskal Herrian aurkitzerik badago?**

Oraingo, behintzat, Internetez eskuratu leiteke bakarrik, <http://inakilarrea.wordpress.com/> orrialdean. Autoedizinoan sinesten dot nik, etalana erraztu eustazen horrek be, ez neban eta argitaletxeetara, atez ate, joan beharrik izan.

**Euskal poemagintza zer egoratan dagoela uste dozu? Zelan ikusten dozu Finlandiatik?**

Ez naz nobedadeak gehiegi jarraitzen dituen horreetakoa eta, hemen egonda, euskarazko liburuak lortzeko aukera handirik ere ez daukat. Zenbait Internetez eskatu izan ditut, halan be. Azken aldiaren publikatu direnen artean oso interesgarria iruditatu jatan Pello Otxotekoren *Goizalbarean argitan*, adibide bat emotearren. Itxuraz, oso poesia sinplea egiten dauen idazlea da, baina liburu horre-



tako poemaren isiltasunaren atzean, badago izateari buruzko gogoeta sakon bat. Etorkizunean kontuan hartzeko poeta izango delakoan nago.

**Kultura eta Hizkuntza Modernoetan lizentziaduna zara Londresko College Unibertsitatean. Irakasle zara Helsinkin. Euskara ikasi gura dauen jentete asko dago Finlandian?**

Herritar arruntak hemen euskaldunotaz zenbat informazio dakien ikusiko baleu, jentea harritu egingo litzateke. Finlandiako hizkuntzak, suomierak, gorriak pasatu ondoren bakarrik lortu eban normalizatzea, eta beharbada horregaitik, interesa daukie euskaragan; mundu akademikoan, behintzat. Gero, ikastera animatzen direnak ez dira hainbeste izaten, noski. Baina interesa sumatzen da, eta hori oso gauza pozgarria da.

“Euskal kulturagazko eta euskaragazko interesa sumatzen dot Finlandian”

“Gorriak pasatu ondoren bakarrik lortu dau suomierak hizkuntza legez normalizatzea”

**Bizitzak Helsinkira eroan zintuen eta hantxe bizi zara. Euskal Herrira bueltatzeko asmorik badaukazu?**

Itzultzen naz aldiari aldiari Euskal Herrira. Ez dakit noiz bueltatuko nazen behin betiko, baina oraindino herrialde ugari dagoz ezagutzen ez ditudanak, eta hareetan denporaldi bat behintzat pasatzea gustatuko litzakit. Hizkuntzak irakatsiz, gainera, beti daukazu diru apur bat irabazteko eta aurrera egiteko modua. Egia esanda, ez deusatz askoz gehiago eskatzen bizitzari.

**Hurrengo literatur lana pentsaturik daukazu? Poemekin jarraituko dozu ala narratibara joko dozu?**

Poesia idazten jarraitzen dot, baina presarik barik, eta publikatzeko larritasunik barik. Orain arteko moduan. ■ I.E. ■ J.D.

ANTZERKIA>

## Clown izaten ikasteko saioak Pep Vilarekin

Gironan jaio eta 1999 urtetik Els Joglars taldeko kide den Pep Vila aktore ezagunak otsailaren 10a eta 13a bitartean eskainiko du San Agustin kulturgunean *Inozokeria ikastaroa* deitzen duena: norbere buruaz barre egiten irakastera etorriko da kataluniarra Durangora, eta clown teknikan barneratuko ditu parte-hartzaileak.

Otsailaren 10a eta 13a bitartean izango da Pep Vila Durango

Ikastaro trinkoa izango da otsailaren 10etik 13rako: 16:00etan hasi eta 20:30 arte iraungo duena. Irakasleak berak azaltzen duenez, ezer egiten ez dakiena da pailazoa, eta ezer egiten ez jakite hori arte bilakatzen dakiena: bere proposamena, aktoreak aurrezikasitako guztia alboratu eta koefiziente intelektuala apalduz "inozo" bilakatzea da. Horrek bilakatzen duela pertsonaia libre esaten du Vilak. ■I.E.

MUSIKA>

## Perkusio etniko eta opera tailerrak Bartolome Ertzillan

Otsailaren 13a arte eman daiteke izena Musika Eskolako tailer bietan

Ohiko eskaintza akademikoaz aparte proposamena osatzen duten perkusio etniko eta opera ezagutzera ematea helburu duen tailerra aurkeztu ditu Durangoko Musika Eskolak. Urteko lehenengo

Kulturarekiko, gauza berriekiko jakinmina duen lagun oro gonbidatu dute



hiruhilabetekorako proposamenak dira biak. Aste honetan hasi da izena emateko epea, eta otsailaren 13a bitartean, Musika Eskolan bertan egin daiteke. Antolazailak kulturarekiko, gauza berriekiko eta, azken finean, musikarekiko jakinmina duten herritar guztiak gonbidatu dituzte tailerretan izena ematera, eta gogorazi dute inolako aurrez gutza musikarik ez dela behar perkusio etniko eta opera tailerretan parte hartzeko.

Iaz egin zuten lehenengoz perkusio tailerra, eta badira hiru urte operarekiko hurbilpena helburutzat duena martxan ipini zutela. Kasu bietan, Musika Eskolako irakasleak dira ikastaroa gidatuko dutenak: Venezuelan jaiotako Lerman David Nieves kontrabaxu irakasleak eskainiko du perkusio tailerra, eta Bartolome Ertzillan piano irakasle den Ana Celia Ormaetxea izango da, azken urteetan lez, opera tailerren arduraduna.

**Mundukoak zein klasikoak**  
Munduko erritmo eta doinuak, opera bezalako musika generoak eta Musika Eskola bera ere jende berriari zabaltzea dira ikastaro hauek programatzeko arrazoiak. Operari dagokionez, Ana Celia Ormaetxea azaldu duenez, "jende gehienak dituen aurreiritziak aldatzea da helburua, opera ez dela zerbait luze eta aspergarria" erakustea.

Operari buruzko aurreiritziak alboratu eta berau ezagutzera eman nahi dute

Munduko musiken erritmo eta doinuak Musika Eskolan

Perkusio etniko tailerra astelehenetan 19:30etik 21:00etara izango da; opera ezagutzeko tailerren hitzordua, berriz, martitzenetan izango da: 19:00etatik 20:00etara. ■I.E.

KOMIKIGINTZA>

## Gazteak euren istorio propioak sortzen: IKIMA

Iurreta eta Durangoko Herri Biblioteketan martxan ipinitako tailerrak dira IKIMA izenekoak. Irudikoa lurretako komikigintza tailerra da.

Bariku arratsaldeetan dute 14 urte-tik gorako gazteek lurretako Biblioteketan komikigintza tailerra. Anartz Aranguena da tailer-emailea. Urta-rrilean, 23an eta 30ean izan dituzte saioak, eta otsailaren 10 eta 13 bitartean elkartuko dira lurretako Biblioteketan, komikietako irudi eta berbeekin istorioak sortzeko.

Gazteek euren sormena landu eta askotariko disziplinetan jardunda euren istorioak sortuz gozatzea da IKIMA tailerren funtsa; Durangoko eta Iurretako Bibliotekek babestu, eta Atarte

Kultur produkzio eta kudeaketa taldeak antolatu du. Dagoeneko idazketa eta ilustrazioa landuak dituzte, eta martxo eta apirilera-ko musika, ahots eta grabaketa tailerra (Malen Zobarane gidatuta) eta muntaketa tailerra (Idurre Arrazolarekin) izango dituzte. ■I.E.

Otsailaren zehar beste lau saio izango dituzte komikigintza lantzeko



Judit Fernandez

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

OTSAILAK 7 21:30ean  
NO USE FOR A NAME + ONLY CRIME + READ MY LIPS  
KONTZERTUA. Sarrera: 17-20 euro.

OTSAILAK 8 17:30ean  
OLGETAN  
TAILERRAK ETA JOLASAK AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

OTSAILAK 10 19:30etan  
DANTZALDI IBILTARIA  
AIKO TALDEA  
DANTZA TAILERRA.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**CLOWN IKASTAROA**  
curso de la imbecilidad

La búsqueda del propio clown  
Pep Vila

Otsailak 10etik 13ra  
16:00etatik 20:30era

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**HITZ**

Liburudenda

Tt. 91 601 07 76 Artekale, 14 Durango



# San Jose Jesuitak Zilarrezko Q-aren jabe



1880. urtean Durangon sortutako San Jose Jesuitak ikastetxeak hezkuntza kalitatea hobetzea dau helburu



**D**urangoko San Jose Jesuitak ikastetxeak Zilarrezko Q saria—Kudeaketaren Kalitateari Euskal Saria—jaso dau Euskaliteren eskutik, azken urteetan zehar ikastetxeak izandako garapenaren ondorioz. Ikastegi inaziarak 1.260 ikasletik gora eta ia 100 hezitzaile daukaz, eta Durangaldean dagoen eskolaratze eskaera handiari erantzuten deutso, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zein Batxilergoko ikasketak eskainiz.

Horrez gainera, eskolak berak betidanik bultzatu izan ditu ikasleei heziketa kalitaterik egokiena errazteko asmoz abiatu diren heziketa esperientzia guztiak. Saiakera horren ondorioz heldu jake hezkuntza munduan hain esanguratsua den Kudeaketaren Kalitateari Euskal Saria.

## Euskalit

Euskalit irabazi asmorik bako fundazioa da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakundeei jarduerak eta emaitzak hobeak izan daitezen laguntzen deutse. Helburu hori erdiesteko hainbat ekimen gauzaten ditu urtean zehar; besteak beste, hainbat erakunderi zuzendutako ikastaroak eta hitzaldiak.

Hezkuntza arloari jagokonez, ehunka ikastetxeri hezkun-

tza prozesua eta ikasleen emaitza akademikoak hobetzen zein ikastetxeko pertsonen arteko barne-komunikazioa indartzen laguntzen deutso fundazioak, esaterako.

Kontzeptuak landu ondoren, horren aplikazioan aurrerapen agerikoak egin ditueen ikastetxeei Euskalitek “kanpoko ebaluaketa” jasotzeko aukera ematen deutse, ikastetxea bera azterketa baten bitartez ebaluatuz. Ikerketa horren ondorio modura, aztertzaleek txosten bat egiten dabe, eskolak hobekuntza horretan aurrera jarraitu daian aholkuak emonez.

## 1.260 ikasle baino gehiagogaz Durangaldeko eskolaratze eskaerari erantzuten deutso

Gainera, eginiko azterketaren emaitza kaleratu egiten dabe. Oti 1.000ra bitarteko puntuazioak Euskalit fundazioaren araberrako balorazioa egiten dau ikastegiaren inguruan: 400 puntu gaintzen dabenek Zilarrezko Q saria lortzen dabe, eta 500etik gorako kalifikazioek urrezkoa.

Q saria izateak ez dau esan gura ikastetxe sariduna hezkuntza zentrorik onena denik. Urteetan eginiko lana saritzen dabe; betekizunak gero eta hobeto gauzatzeko egindako ahalegina.

## Hezkuntzatik harago

Aro barrietara ondo egokitu den ikastetxea da San Jose Jesuitak ikastetxea, eta, gainera, gure gizartean oinarri-oinarrizko diren euskararen eta euskal kulturaren aldeko apustua be egiten dau.

Horretarako, eguneroko zereginetan presente izaten dabe gure herriaren kultur balioa

eta hizkuntza, egunerokotasunean eurekin biziz eta mantenduz. Ikastetxeak Hizkuntza Normalkuntza Plana eginda dauka, eta Hezkuntza Saileko Ulibarri programaren barruan sartuta dago.

Era berean, San Jose ikastetxeak berea dauen ezaugarria da beharrik handiena daukien ikasleekiko konpromisoa; besteak beste, urterik urte areagotzen dabilen ikasleria etorkinagazko laguntasuna. Azpimarragarria da, gainera, ikasketa orduetan ez eze, kultur zein kirol jardueretan be elkarrekin jarduten dabela irakasle, guraso eta ikasleek.

**Ikasleen emaitza akademikoak hobetzen laguntzen dau Euskalit fundazioak**

**Euskararen Normalkuntza Plana martxan dauka San Jose Jesuitak Ikastetxeak**



# MAITTEMINDUEN EGUNA OTSAILAK 14



99,90€



# EROSKI

zurekin ABADIÑO



399€



49,90€



299€





# NK

zilarrezko  
diseinugintzarako  
artisau-tailerra eta  
enkarguzko lanak



Iturriza, 21 • 48240 Berriz • e-mail: nkjoyeria@yahoo.es • Mug.: 661 332 446




Kalebarria z/g - 48200 Durango  
94 620 18 93 - Faxe: 94 681 64 03

# Arrike

Liburudenda

**Artekale, 2  
Durango**

94 603 04 41

- > ALTZAIKUZKO ETA ZILARREZKO BITXIAK
- > BILLETE-ZORROAK
- > SOIN-UHALDUN ZORROAK
- > BIDAI- ETA KIROL-POLTSAK
- > GERRIKOAK
- > GORBATAK
- > MAHUKA-ORRATZAK
- > BOTOI-ESTALTZAILEAK
- > ESKULARRUAK
- > ERLOJU-GORDELEKUA
- > GILTZATAKOA
- > NEZESERRAK
- > MALETAK
- > PC MALETATXOA / PAPER-ZORROAK
- > DIRU-ZORROAK
- > ATERKIAK
- > ZAPIAK / BUFANDAK
- > TXAPELAK
- > ... ETAB

# Sándalo

DURANGO

Complementos para el hombre

BEHARRIZANETARAKO,  
GUTIZIA BATERAKO,  
MODA JARRAITZEKO,  
OPARITZEKO, ...

GIZONEZKOEN  
OSAGARRIAK,  
DENAK, LEKU BEREAN

# 4. AUKERA azoka

## 4. ASTEBURURAKO PLANA





OTSAILAREN 13TIK 15RA  
LANDAKO GUNEAN

# prezio barregarrienak

ERITZIA<sup>></sup>

kolaborazioa

## Gutunak

## Gazteon aurkako kriminalizaziorik ez!

2006ko abenduaren 30ean, Abadetxea istripu baten ondorioz erre ostean, Iurretako hainbat elkarte, talde nahiz Gazte Asanblada kale gorrian gelditu ginen. Honen aurrean Udalak espezializazioak eginez eta Iurretako herriaren nortasuna finkatzen duten taldeei inongo irtenbiderik eman gabe; are gutxiago Gazte Asanbladaren kasuan, nortasun juridiko baten falta dugula argudiatuz, aurreko urteetako lanaren zilegitasuna zaborretara botaz.

Egun gutxira hutsik zegoen 'txapalantegia'-n sartu ginen egoerari irtenbidea eman nahian, elkarte zein bestelako taldeei beraien jarduerak bertan burutzeko aukera emanez.

Lehenengo egunetik 40tik gora gazte identifikatuak izan ginen kasko gorridunen eskutik, eta epaitegiko eskailerak igotzera behartu gintuzten. Azkenik, eraikinetik desalojatuak izan ginen hil eta erdira, gazteoi egozten ziguten usurpazio delitua bertan behera geratu zelarik artxibatuta.

Kale gorrian gure jarduerak aurrera eramaten denbora dezenteman ostean, gazteon ametsi babesa emanez, gaztetxe bat lortzeko hainbat saiakera egin genituen. Lehenik, frontoi ondoko etxolan bi hilabete eman genituen, egunero txapelgorrien bisitatxoak jasotzen genuelarik, gure jarduerak oztapatuz, bertakoak identifikatuz eta berriro ere epaitegira bideratuz.

Behin desalojoa emanda, Udalaren lokal huts batekin egin genuen saiakera, eta sartu eta ordubetera bultzaka atera gintuzten kasko gorriek, alkatearen aginduz. Berriro ere kalean gauden honetan, herriko baliabideak erabiltzeko aukera ere ukatu izan digute zeozer antolatu nahi izan dugun bakoitzean.

Egoera aldapatsu hau gutxi balitz, asteen Iurretako gazte bat epaitu nahi izan dute Bilboko adin txikikoen epaitegian, "ustezko usurpazio delituagatik", gainontzeko beste 10 gazteren aurkako kasu bereko prozedurak artxibatu zirela jakinda.

Azkenean, epaiketa hasi eta berehala kargu barik utzi dute, prozedura guztiz artxibatuz. Guri arrazoi emanez. "Delitu" guztien gainera, Iurretako gazteon beharrian eta eskubideak bermatzea inongo aitzakia ez dela uste dugu jasandako gurutzebideak jasateko.

Honen guztiaren aurrean, argi utzi nahi diegu gazteok kriminalizatzea baino nahi ez duten udal agintari, polizia zein epaile horiei, orain arte bezala aurrerantzean ere, jarrirako oztopo guztiak gaindituz, herria eraikiz, gazteon ametsak eta borrokek aurrera jarraituko dutela, okupazioa eta autogestioaren bidetik, gure helburuak lortu arte.

Iurretako Gazte Asanblada

## Konturatu orduko, 10. urteurrena!

Otsailaren 12an 10 urte igaroko dira Sapuetxe gaztetxearen okupazioa burutu zenetik. Lan luze eta gogorra egin da, oztopoz bete, baina honen guztiaren gainera, erreka gaineko etxe zaharkitu horretan, belaunaldiz belaunaldi sortutako borroka, amets eta bizipen ahaztezinekin aurrera jarraitzen dugu.

10 urte hauetan etengabeko desalojo mehatxuak jaso izan ditu Sapuetxek, honetaz gain udaltzaingoan jarrera bortitz eta erasokorraren biktima izan da gure gaztetxea. Batez ere, azken urteetan zehar, suzko armak soinean daramatzatenetik. Geratutakoaren aurrean, Udala mutu geratu da eta ez du inolako erantzukizunik hartu.

1999ko otsailaren 12 hartatik, durangar zein durangar ez diren askoren aterpe izan da Sapuetxe. Lagun askok borrokatu dugu gure etxeak zutik eta bizirik jarrai dezan. Gutun honen bidez, otsailaren 12tik 14ra burutuko diren ekimenetan parte hartzera gonbidatzen dugu herritar oro; bereziki, azken 10 urte hauetan, bertatik pasa zaren pirata eta ameslari guztiok, denon artean ametsak aurrera darrai!

Nahiz eta 10 urte bete, lan ugari dago egiteko Durangon, gauza asko salatzeko, ilusio asko aurrera eramateko... Badakigun arren bidea ez dela erraza izango, guztiok gogor borrokatu behar dugu gure eskubideen alde. Horregatik, durangar gazte guztiok astelehenero 19:00etan burutzen ditugun asanbladetara deitzen zaituztegu. Denon artean Durango berri bat eraiki behar dugulako!

Beste barik musu eta besarkada iraultzaile asko denoi! Bereziki, Espainiako zein Frantziako espetxeetan gatibu zein sasi artean zaudeten gazte eta ez hain gazteoi! Aupa zuek, eutsi gogor!

...eta urte askotarako... Gora Sapuetxe!  
Otsailaren 14an denok Sapuetxera!

Durangoko Gaztetxea

## Arrano beltza

Hegoak ebaki zizkioten. Ez zen gehiago txoria izango. Eta guk txoria genuen maite, mendi tontorren askatasunak gogobetetzen zuen arrano beltza. Hamabi urte igaro dira alde egin zuenetik. Hamabi urte, (aske azkenean), bere buruaz beste egin zuenetik. Bere begi ninietako Athleticen bufandak hiltzeraino estutu zion sama, isiltasunaren eta bakardadearen ziegan, Alcala-Mecon.

Katxuak ezin izan zuen gehiago jasan, ezin izan zuen egoera hartan biziraun. Kartzelak erahil zuen Katxua. Otsailak zazpi zituen. Hamabi urte igaro dira eta, urtero bezala, berriro ere omenduko dugu aurten Elorrioko euskal borrokalari. Hiru aldiz atxilotu eta preso eraman zutena, tortura laggarriak jasan behar izan zituen, kaiolan bizitzera inoiz moldatuko ez zena. Sufrikario lar.

Urtero lez, zapatu goizean Anbotora igoko gara. Hantxe sentituko dugu gertuen gure arrano beltza. Arratsaldean herriko kaleetan zehar manifestatuko gara eta, berriz ere, errepresioa ez dela bidea oihukatuko dugu, ezta berriz ere lehertzeraino. Urtero bezala, berriz ere helaraziko diogu Elorrioko herriari zenbat maite genuen Katxua. Domekan, azkenik, Berriozabaletan omenduko dugu ekitaldi xume bezain hunkigarrian. Tenplau, Katxua! Irabaziko juau-eta!

Urtero bezala, berriz ere, berriro gertatu ez dadin. Espainia eta Frantziako kartzeletan 22 euskal preso hil egin dira, (hil egin dituzte), "demokrazian bizi garenetik" gaurdaino. Demokrazia? Mendekuan oinarritutako espetxe politika daraman estatu bat ezin da demokratikoa izan.

Karlos Eriz (Elorrio)

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**  
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org  
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zerbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Marisa Barrena

## Ohiturak jagoten

Euri eta haizeari aurre eginez, eguna luzatu dela igartzen den sasoiari, ezta berriz ere babesteko San Blas-hari bedeinkatu jantzi eta makila eskuan hartuta, lurrari iratzartzeko eta fruituak oparotasunez emetoko eskatuz, Santa Ageda kantatzen ibili dira asteen eskualdeko hainbat herritan; adin, sexu, kolore, ideologia eta sinesmen askotako herritarrak.

Aspaldiko ohitura da gurean etxerik etxe, kalerik kale, eskean ibiltzea. Ohituraren jatorri zehatza jakitea gatxa den arren, dakiguna da Ageda Italian jaio zela III. mendean, Siliziako familia aberats batean, eta neska ederra izan zela. Garai hartan Siziliako nagusi zen Quintiniani begitik sartu ei jakon. Honek ahalegin guztiak egin zituen, antza, neska bereganatzeko, baina alferrik. Ageda ezin ebalu lortu ikusita, tortura gogorak ezarri eutsazen; ezagunena, bi bularrak moztea izan zen.

Nire iritziz, Agedaren heriotzak, batetik, oraindino bizirik dirauen emakumeen kontrako indarkeria matxista gogorazotzen deusku. Bestetik, eskean ibiltzeko gaur egun ohitura hau jagoteak, euskara kaleratzeko aukera itzela eskaintzen deuskulakoan nago. Gure herri eta hiriek, egun batez behintzat, euskargaz kontaktu zuzena izaten dabe-eta. Euskararen erabilera bultzatzeko bideak errazten eta asmatzen dihardugun sasoi honetan, ekimen ezin hobea iruditzen jat kalerik kale euskaraz kantatzea.

Gainera, ezin ahaztu, krisiak jota gagozen sasoi honetan talde batzuek behartsuentzat dirua eskatzeak egoera larrian dagozenei laguntzeko bidea be emoten deuskula.

Halan da ze, antzinakoak izan arren, ohitura batzuk merezi dabe jagotea, gaur egun be gure gizarte edo mundu aldrebes honetan euren lekua eta zeregina betetzen dabe-eta ohiturok.



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



**anboto**  
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte  
2009ko otsailaren 6a - 8. urtea - 317 zk.

## Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

## Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

## Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

## Publizitatea:

Alonso eta Amaia Huarte.

## Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onandia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

## Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



onkaraz bizi  
nahi dugunon  
herrira



16. korrika aek  
Tutxa-Gastiz 99  
Inbentarioa 2009ko otsailaren 6a

# izan zaitez aek KORRIKA laguntzailea

12 euroren truke,  
garrantzitsuena lortu duzu:

**KORRIKA  
LAGUNTZAILEA** izatea.

Honez gain pina eskuratuko duzu eta,  
eskaintza orria betez gero, txartelak  
ematen dizkizun abantailak ere bai.

www.korrika.org



**anboto**   
komunikabideak

# AGENDA >

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Otsailaren 6an, 22:00etan

## ARRAKASTA HELBURU DAUEN LASTERKETA

Grina kontsumistaren garaian arrakastaren bila diharduen lau negozio-marrazo dira Yllanak Elorrion dakargun 'Brokers' obrako protagonistak. Luxua, ospea, boterea, nartzizismoa eta estatusa ditue tik kultural. Markako modaren, teknologia barrien, jateko osasungarrien eta gorputzaren kultuaren fanatiko doguz lau lagunok. Barrea segurua da, soinu-banda zaindu eta eszenaratze ezin hobeagaz.

### ANTZERKIA

#### BERRIZ

>> 'Cyrano' (Gorakada), otsailaren 6an, 17:30ean, Kultur Etxean. Zazpi urtetik gorakoentzat.



#### ELORRIO

>> 'Brokers' (Yllana), otsailaren 6an, 22:00etan, Arriola antzokian.

#### ERMUA

>> 'Lentas pero seguras' (Higiénico Papel Teatro), otsailaren 6an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

#### ZORNOTZA

>> 'Cyrano' (Gorakada), otsailaren 7an, 18:00etan, Zornotza Aretoan. Zazpi urtetik gorakoentzat.

### BESTEAK

#### DURANGO

>> Txiki Parka, Landako erakustazokan. Hainbat jostailuz hornitutako

espazio egokitua 3. moduluan, 17:00etatik 20:00etara. Urtarrileko, otsailako eta martxoako asteburuetan Udaleko Kultura Sailak antolatuta.

>> Olgetan: tailerrak eta jolasak, otsailaren 8an, 17:30ean, Plateruena kafe antzokian. Berbaro euskara elkarteak antolatuta.

#### IURRETA

>> Umeendako erromeria. Otsailaren 7an, 18:00etan, frontoian.

#### DURANGO

>> Geroa antzerki taldeari omenaldi erakusketa. Otsailaren 7a bitartean, San Agustin kulturgunean. Egutero, 18:00etatik 20:00etara.

#### ERMUA

>> 'Eskulturak, grabatuak, collageak' (Baroja Collet). Otsailaren 28a arte, Lobiano kulturgunean.

### IKASTAROKAK

#### DURANGALDEA

>> Guraso Eskolak, otsailaren lehenengo astean hasita (90 minutuko zortzi sesino), Durangaldeko hezkuntza zentroko udal lokaletan. Durangaldeko Mankomunitateko Drogomenpekotasun Prebentziorako Sailean (Durangon) emon leiteke izena, (94 620 05 20).

>> 'Zure antsietatea kontrolatzen ikasi gura dozu?', emakumeendako antsietatea kontrolatzeko ikastaroa. Otsailaren hasita. Astean behin izango diren hiru orduko 15 sesino egingo dira, Durangoko Landako osasun zentroan. Eskolak, astelehen edo eguenetan izango dira, 16:00etatik 19:00etara (94 620 05 20).

#### DURANGO

>> 'Curso de imbecilidad (la búsqueda del propio clown)' ikastaroa, otsailaren 10etik 13ra, 16:00etatik 20:30era, San Agustin kulturgunean.

>> Dendaketan Merkatarientako euskara ikastaroak. Hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei zuzenduta. Udaleko Euskara Sailak eraturako ikastaroak dira. Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 6a bitartean (94 603 00 16 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

>> Ostalariendako euskara ikastaroak. Merkatarientako azken hiru urteetan eraturako ikastaroen emaitzak ikusita, euskara ikasteko interesa daukien ostalarien beharrei erantzuteko asmoz antolatu ditu eskolok Udaleko Euskara Sailak. Hasita dago matrikulatzeko epea, otsailaren 6a bitartean. Durangoko ostalaritza establezimenduren batean lanean diharduen edonork parte hartu leike, eta hainbat mailako taldeak osatuko ditue, bai zerotik bai maila bategaz hasi gura dabenei begira (94 603 0016 / gukeuskaraz@durango-udala.net).

### DANTZA

#### DURANGO

>> Dantza tailerra: 'Dantzaldi ibiltaria' (AIKO taldea). Otsailaren 10ean, 19:30ean, Plateruena kafe antzokian.



#### ERMUA

>> Euskararen Aholku Batzordea, otsailaren 12an, 19:30ean, Lobiano kulturgunean. Herrian euskara sustatzea helburu daben herritar guztiendako batzorde irekia. Parte hartzeko jarri hartu-emonetan (943 179 147 / euskara@udalermua.net).

### DEIAK

#### DURANGO

>> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Egutero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

>> Bost eurogaz saritutako + Dendak elkarteko establezimenduetan banatutako Gabonetako loteriaren 68.258 zenbakiaren 19.600 partizipazioak kobratzeko, Nafarroako Aurrezki Kutxaren sukurtsalean.

### ERAKUSKETA

#### ABADIÑO

>> XIII. Argazki Rallyko argazkiak. Otsailaren 9tik 14a bitartean, Txanporta kultur etxean.

#### BERRIZ

>> 'Basoak klima aldaketaren aurrean'. Basoko injineru teknikoen elkarteak. Kultur Etxean.

# OTSAILA

# BERRIZKO UDALA

#### Otsailak 6

Haur antzerkia: Cyrano. Kultur etxea. 17:30.

#### Otsailak 11

Udal bilkura. Udaletxea. 19:00.

#### Otsailak 13

Musika: Modesto Aranari omenaldia. San Juan Ebanjelaria elizan. 20:30.

#### Otsailak 20

Musikala umeetat: Xurdirin. Olakueta pilotalekua. 17:00. Tren txu-txua Berrizko kaleetan. Arratsalde.

#### Otsailak 21

Anberria Txaranga Berrizko kaleetan. 17:30. Herri afaria eta Luhartz erromeria. Olakueta pilotalekua.

#### Otsailak 23

Jolas-parkea. Kiroldegia. Arratsalde.

#### Otsailak 27


Haur antzerkia: Txio Txioa. Kultur etxea. 17:30.

#### Guraso Eskolak

Otsailak 24: 0-3 urteko umea hezi. Haur Hezkuntza (0-3). Learreta-Markina eskola. 17:00. Otsailak 25: Disziplina nola bideratu. Haur Hezkuntza (3-6). Learreta-Markina eskola. 17:00. Otsailak 26: Emozioak hezi. Lehen Hezkuntza (6-12). Learreta-Markina eskola. 17:00. Oharra: Haurtzaindegi zerbitzua egongo da. Izena emateko azken eguna otsailak 20.

#### Bestelakoak

Tailerra: Emakumeen sexualitatea. Izena ematea udaletxean. Tailer hasiera martxoan. Otsailako astearteetan: "Nire izate femeninoa" tailerra Kultur Etxean.



### IPUINAK

#### ERMUA

>> Haurrendako ipuin-kontalaria: Pello Añorga, otsailaren 7an, 17:30ean, Udal Liburutegian.

### JAIK

#### ABADIÑO

#### San Blas

>> Idi-probak, otsailaren 6an eta 7an, 22:00etan; otsailaren 7an 17:00etan be izango da saioa, eta, 8an be bai. Hilaren 9an, barriz, 21:30ean izango da. Amaitutakoan, txapelketako sari banaketa egingo dabe.

>> San Blas 2009 Pilota Txapelketako finalerdiak esku-huska, otsailaren 6an, 18:00etan, Tornosolo trinketean.

>> Kontzertua: Gorroto + Golpe de Estado + Nuevo Catecismo Católico, otsailaren 6an, 22:30ean, Abadiñoako Gaztetxean.



>> Emakume baserriar eta artisauen bazkaria, otsailaren 7an, 14:00etan, Soloa jatetxean. Korri eta Xaltoa pailazoak, 18:00etan, Txanporta kultur etxean.

>> Bazkaria, otsailaren 7an, 14:00etan, Abadiñoako Gaztetxean. Triki-poteoa, 18:00etan, Gaztetxean hasita.

» **Rock kontzertua: Des-kontrol + Skovers**, otsailaren 7an, 22:30ean, Txosnagunean. **Egurre eta kitto + Dj Bull**, 22:00etan, Abadiñoko Gaztetxean.



» **San Blas 2009 Pilota Txapelketa-kon finalak esku-huska eta palan**, otsailaren 8an, 10:30ean, Tornosolo trinketean.

**IURRETA**

**Santa Apolonia**

» **Meza**, otsailaren 9an, 12:00etan, Santa Apolonian.

**LEHIAKETAK**

**ABADIÑO**

» **XXI. Burduntziko Bildots Txapelketarako izena emoteko epea zabalik**. Txanporta kultur etxera jo leiteke, 15:00etatik 20:45era bitartean. Prezioa: 10 euro. Udalak bildotsa eta ikatza ipiniko ditu, erretzeko trepentxu eta erremintak norberak eroango ditu. Sariak: 1.a 60 euro, 2.a 50 eta 3.a 40, 4.a 30 eta 5.a 20. Lehenengo 18ek jasoko dabe garaikurra. Otsailaren 14an bertan **Probalekuan izango den bazkarirako txartelak** 15 euroan dagoz Errota eta Txanporta kultur etxeetan salgai.

» **Emakumeen Nazinoarteko Egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a: Errota kultur etxean edo Udaleko Berdintasun Zerbitzuan. Saria: 600 euro. Herriko onenarentzat, barriz, 150 euro izango dira.

**BERRIZ**

» **Emakumeen nazinoarteko egunerako kartel iragarlea aukeratzeko lehiaketa**. Lanak aurkezteko azken eguna otsailaren 16a: Udaleko erregistroan edo Udala

Liburutegian. Saria: 300 euro. DBHko ikasleen artean irabazleak argazki kamara digitala lortuko dau (94 682 40 36-(6) / [berdintasuna@berriz.org](mailto:berdintasuna@berriz.org)).

**LITERATURA**

**IURRETA**

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**, maiatzaren 25a bitartean, astelehenean, 18:30etik 20:30era, Udala Liburutegian. Aurretik eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko da (94 681 27 26 / [biblioteca@iurreta.net](mailto:biblioteca@iurreta.net)).

» **Haurren irakurketa kluba**, otsailaren 10ean, Udala Liburutegian. **Astakiloak transatlantikoan** (8-10 urte), 16:45ean, eta, 17:45ean, **Ilunordeak eta argilaurdenak** (10-12 urte).

**MUSIKA**

**BERRIZ**

» **Zea Mays + Xarma**, otsailaren 6an, 22:30ean, Hiltegixen. Gaztetxearen 10. urteurrena dela-eta.



**DURANGO**

» **The Rubinoos (USA) + Suzy & Los Quattro**, otsailaren 6an, 22:00etan, Plateruenean.

» **No Use For a Name + Only Crime + Read My Lips**, otsailaren 7an, 21:30ean, Plateruenean.

» **The Black Dahlia Murder + Cephalic Carnage + Pysicropic + Sylosis**, otsailaren 11n, 20:00etan, Plateruenean.

**ZINE-KLUBA**

**DURANGO**

» **Zinegoak 09: Bilboko gay-lesbo trans 6. nazinoarteko zinemaldia**. Otsailaren 13an eta 14an, 22:00etan, San Agustin kulturgunean.

**ERMUA**

» **Umeendako zinea: 'Palacio Real'**. Otsailaren 8an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **Zine erotikoren zikloa: 'El sabor de la sandia'**, otsailaren 12an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean

**ZORNOTZA**

» **'De la escena y de la música al cine' zikloa: 'Fados' pelikula**, otsailaren 10ean, 20:15ean, Zornotza Aretoan.



Otsailaren 7an, 22:00etan

**NO USE FOR A NAME, KALIFORNIATIK**

Kaliforniatik (AEB) jatorkun taldeak mogiarazoko dau, zapatuan, Plateruena kafe antzokiko oholtza: No Use For A Name. Hardcore melodikoa eta punk-rocka darabilen talde ezaguna da. Kaleratu barri daben lanaz gozatzeko aukera izango dabe, gainera, bertaratuko diren jarraitzaileek. Eurekin batera Only Crime eta Read My Lips taldeek be eskainiko dabe kontzertua, 22:00etan hasita.

**ZINEMA**

**DURANGO**

Zugaza

**Un Chihuahua en Beverly Hills**

Zuzendaria: *Raja Gosnell*; barikua 6: 18:00 / 20:30

zapatua 7: 17:00 / 19:30 / 22:30

domeka 8: 17:00 / 19:30  
astelehena 9: 18:00 / 20:30  
martitzena 10: 20:00



**ELORRIO**

Arriola antzokia

**La ola**

Zuzendaria: *Dennis Gansel*  
zapatua 7: 22:30

domeka 8: 20:00  
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

**Winx: erreinu galduaren sekretua**  
domeka 8: 17:00

**ZORNOTZA**

Zornotza Aretoa

**Una familia con clase**

Zuzendaria: *Stephan Elliott*  
zapatua 7: 22:00

domeka 8: 20:00  
astelehena 9: 20:00



Umeendako zinema

**Perez 2: gure sagutxo hori**  
domeka 8: 17:30

**BOTIKAK**

- Barikua, 6**  
09:00-09:00  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)  
09:00-22:00  
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)  
**Zapatua, 7**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)  
09:00-13:30 (\*14:00)  
• Balenziaga / Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego / Campillo / San Romá / (Durango)  
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)  
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)\*  
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)\*  
**Domeka, 8**  
09:00-09:00  
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)  
**Astelehena, 9**  
09:00-09:00  
• De Diego (Inxaurrenondo 22 - Durango)  
09:00-22:00  
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)  
**Martitzena, 10**  
09:00-09:00  
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)  
**Eguaztena, 11**  
09:00-09:00  
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)  
Durango)  
09:00-22:00  
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)  
**Eguena, 12**  
09:00-09:00  
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak.....112**  
**DYA .....94 620 28 00**  
**Gurutze Gorria ....94 681 09 49**  
**Osakidetza .....94 600 72 00**  
**Ertzaintza .....94 466 93 00**  
**Suhiltzaileak .....112**  
**GARRAIOAK**  
Euskotren.....902 54 32 10  
Durango .....94 681 02 32  
Bizkaibus .....94 448 40 80  
Pesa .....902 10 12 10  
Continental Auto ....945 286 466  
**TAXIAK**  
Abadiño .....946 814 470  
Matiena .....606 459 988  
Durango Geltokia....946 811 001  
Goco Tour .....946 202 860  
Tele Taxi .....944 102 121  
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026  
Elorrio Geltokia .....946 820 040  
J.L. Uriarte ..670 402 002  
I. Estebez ....670 678 273  
M Galeano.....946 582 854  
Iurreta .....946 201 565  
**UDALAK**  
Abadiño .....94 621 55 30  
Atxondo .....94 682 10 09  
Berriz .....94 682 45 84  
Durango .....94 603 00 00  
Elorrio .....94 658 27 12  
Garai .....94 681 63 93  
Iurreta .....94 620 12 00  
Izurtza .....94 681 35 48  
Mallabia .....943 17 14 61  
Mañaria .....94 681 89 98  
Otxandio .....945 45 00 20  
Zaldibar .....94 682 70 16  
**UDALTZAINGOA**  
Abadiño .....94 621 55 33  
Berriz .....94 682 40 36  
Durango .....94 603 00 10  
Elorrio .....94 682 02 18  
Iurreta .....94 620 08 88  
**BESTELAKOAK**  
Arriola .....94 658 31 92  
San Agustin .....94 603 00 21  
Zornotza Aretoa ....94 630 01 68  
Gazte informazioa 94 603 00 30  
Txanporta KE .....94 620 36 47  
Errota KE .....94 466 94 16  
Gorabide .....94 681 24 35  
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51  
Nekazal bulegoa ....94 681 15 20  
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86  
Butanoa (UME).....94 681 08 77  
Araztegia .....94 620 28 00  
Foru Ogasuna.....94 681 07 42  
INEM Durango .....94 681 12 96  
Gizarte Segurantzak 94 681 49 58  
Epaitegiak.....94 603 00 51  
**KIROLDEGIAK**  
Igerilekua  
Astola .....94 620 29 29  
Igerilekua  
Atxondo .....94 623 14 38  
Berriz .....94 682 43 74  
Durango  
(Landako).....94 621 51 30  
Durango  
(Tabira) .....94 621 51 50  
Elorrio .....94 682 10 27  
Zaldibar .....94 682 73 74

**EGURALDIA**

- 5  
**6º BARIKUA** ☁  
Hego-mendebaldeko haizeak ipar-mendebaldera egin eta nabarmen hoztuko dau, arratsaldean batez be. Goizetik hasita botako ditu zaparradak. Elur-kota 600m-tan kokatuko da arratsalde partean.  
4  
**6º ZAPATUA** ☁  
Asteburua giro hotz eta umelagaz hasiko dogu. Zaparradak botako ditu. Haizea ipar-mendebaldetik zakar samar sartuko da. Goizean izotza botako dau. Elur-kota 600m-tan kokatuko da.  
6  
**7º DOMEKA** ☁  
7  
**16º ASTELEHENA** ☁  
6  
**8º MARTITZENA** ☁

durangaldeko  
bherriak  
ezagutzeko

**anboto**   
komunikabideak

**durangaldeko astekaria**

**Egin zaitez harpidedun**



harpidedun egiteko, deitu  
94 623 25 23 telefonora edo  
*harpidetza@anboto.org*-ra  
zure izen-abizen eta helbidea bidali

# KIROLAK >



Kepa Aginako

**T**abirako etxean baino askoz sendoago dabil etxetik kanpora aurtengo denboraldian. Gaur egun, zazpigarren daude sailkapenean, hamar garaipenekin. Horietatik zazpi Durangotik kanpora lortu dituzte, eta hiru besterik ez Landakon. "Taldeak izaera bikoitza duela ematen du, etxean edo kanpoan jokatu", dio Josu Zudaire entrenatzaileak.

Azaldu dugunaren adibiderik berriena joan zen asteburuko partidua da: Atletico San Sebastian taldearen kontra kanpoan lortu zuten garaipen handia. Talde biak bederatzina garaipenekin berdinduta zeudenez, partidu lehiatua, gogorra eta parekatua zegoen aurreikusita. Tabirakok, ordea, pronostiko guztiak hautsi zituen, eta erauntsi geldiezina

## Etxean uso eta kanpoan otso

izan zen (54-73). Durangarrek erritmo itogarria ezarri zuten hasiera-hasieratik, eta Atletico San Sebastianek arazo handiak izan zituen jokoa sortzeko. Bestalde, lehen itzuliko neurketan Tabirakori hainbeste erasan zion zonakako defentsa ez zen oztopo izan bueltakoan, eta oso inspiratuta ibili zen erasoan.

Etorkizunari begira, erregulartasuna bilatzea dute helburu. Bihar Deusto-Loiolaren aurka jokatuko dute Landako kiroldegian. Etxeko partiduetan duten arantza kentzen saiatuko dira. Horretarako, partidu aproposa dirudi. Izan ere, Deusto-Loiola azkenurreko dago sailkapenean, eta hiru partidu besterik ez dituzte irabazi denboraldi osoan. Hurrengo partidua, berriz, Asti-

**Kanpoan zazpi garaipen lortu dituzte; etxean hiru besterik ez**

garraga azken sailkatuaren etxean jokatuko dute.

**Jaitsiera fasea itxaropentsua** Lehen Erregionaleko neskek jaitsiera fasea jokatuko dute. Hilaren 14an dute lehen lehia. Lau partidu eta porrot birekin ekingo diote faseari. Datu onak dira. Gainera, azken bost partiduak segidan irabazi dituzte. Merituzko lana da, talde oso gaztea dutela kontuan hartuta. ■ J.D.

### 24 Kluben artekoa aldapa gora

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketak bigarren itzuliari ekin dio. Oizpe eta Ezkurdi bizirik daude oraindik; Tornosolo eta Atxartek oso zail dute finalerdietarako sailkapena.

### 25 Abadiñoako tiralariak, bikain

Goma gaineko lehen bi txapelketak irabazi dituzte. Azkena, 600 kilokoa, Lesakan lortu zuten iragan asteburuan. Gaur Herbehereetara joan dira hango Openean parte hartzeko.

# Kluben Artekoa partidu erabakiorretara iritsi da

Lehen itzulian nabaritu zena hasi berri den bigarrean konfirmatuko da; Durangaldeak lau pilota eskola ditu lehian



Asier Aspuru galdutako egin zuen, martitzenean, faborito den Lana lizarratarraren aurka. Iban Gorriti

Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketak bigarren itzulari ekin dio. Hemendik aurrera, ezin daiteke hutsik egin. Saikapenean goian daudenek euren nagusitasuna defendatuko dute, eta behekoek datozen aste biak dituzte egoerari buelta emateko. Durangaldeak lau ordezkari ditu

**Oizpe eta Ezkurdik aukerak dituzte; Atxarte eta Tornosolak zail dute sailkapena**

txapelketan: Ezkurdi Jai Alai zestana, Tornosolo goma-paletan, eta Oizpe eta Atxarte pilotan.

Joan zen asteburua eskasa izan zen gure ordezkariarentzat: denek galdu zuten. Berrizko Oizpe eskolak Amezketa Zazpi Iturriren kontra 22-5 galdu zuen

22 urtez azpiko binakako txapelketan, eta amezketarrek lider jarraitzen dute; Oizpe eta Ilunpe berdinduta daude bigarrean, garaipen bi eta porrot batekin.

Esku-pilotarekin jarraituz, Atxartek asteburuan ez ezik martitzenean ere jokatu zuen, eta bi lehiak galdu zituen. Martitzenean, Matienako frontoian jokatuak neurketan Lizarra erraz nagusitu zitzaion (4-22).

### Goma-paleta eta zesta

Goma-paletan, Tornosolak ezin izan zuen txapelketako bigarren garaipena eskuratu. Lider dagoen Su-Berrik 9-30 irabazi zion. Txapelketako laugarren partidua atzo jokatu zuten, Dulantziren aurka. Asteburuan Oberena izango dute arerio.

Zestana, nagusien ohorezko mailan, Ezkurdi esku hutsik bueltatu zen Zumaiatik (35-22). Horrela, Zumaiak txapelketako lehenengo garaipena lortu zuen.

Durangarrak, aldiz, hirugarren daude. Asteburuan Euskal Jai Alairen kontra beharrezko dute garaipena, finalerdietarako sailkatu nahi badute.

### Salaberria eta Beitia

Ibon Salaberria eta Jon Beitia elorriarrak kanpoko eskolekin ari dira jokatzeko. Jon Beitia Galdakako Adiskide eskolarekin bigarren dago, eta finalerdietara sailkatzeko aukera handiak ditu eskuz binakako ohorezko mailan. Ibon Salaberria Elgetako klubarekin ari da binakako ohorezko mailan; hirugarren daude garaipen bat eta porrot birekin. ■ J.D.

**Salaberria eta Beitia elorriarrek Galdakao eta Elgetarekin jokatzeko dute**

## Murgoitio 30. mundu mailan

Hoogerheiden (Herbehereetan) jokatu den Munduko Ziklo-Kros Txapelketan 30. geratu da Egoitz Murgoitio. Niels Albert belgiar txapelkunarengandik 2.51ra helmugaratu zen. Javier Ruiz de Larrinaga, berriz, 41. sailkatu zen 4.26ra.

Albert gazteak -23 urtez azpiko munduko txapelketa izan bigarren itzulian bakarrik alde egin zuen; inork ezin izan zuen bere erritmoa berdindu.

Emakumeen artean Marianne Vosek -21 urte ditu- irabazi zuen bere zaleen aurreran.

## Larrasoloeta lider da xakeko goren mailan

Durangoko Larrasoloeta Xake Taldea lider jarri da Bizkaiko gorengo mailan. Orain arte berdinketa bat eta porrot bat zituen, baina joan zen astean egurtu egin zuten Zuri Baltza B (0-4) eta lehenengo postura igo dira. Asteburuan etxean jokatu

**Asteburuan etxean jokatu dute Zornotzaren aurka**

dute, Zornotzaren kontra. Eloorrioko Zaldi Baltza, berriz, beharrezko dago, sei punturekin. Hirugarren jardunaldian bina berdindu zuten, Barakaldoren kontra. Asteburuko partiduan Erandio bisitatuko dute.

Maila bat gorago, Abadiño berpiztu egin da. Ligako lehen bi neurketak galdu ondoren, Gros B 3-1 menderatu zuen etxean. Bihar erronka gogorra dute Sestaon, saikapeneko hirugarrenaren kontra. Abadiño, berriz, zazpigarren dago. ■ J.D.

Agustin Alkorta  
• Futbol entrenatzailea



### Helburua argi

Futbol denboraldi erdia pasatu da eta gure taldeetatik, beste askoren artean be bai, gehien nabarmendu dena Elorrio izan da.

Urtero dabilz igotzeko asmoagaz, huts egin dabe momentu konkretuetan, baina aurtent... Bai, aurtent igoko dira; meritu guztiakin eta errekorrak apurtzen, gainera. Baina marka honek guztiak ez ditue despistatu behar.

Zer ardura dau golik jaso barik egoteak, ondo jokatzeko... igotzen ez bada! Futboleant emaitzaren menpe bizi gara; historiarako galdutako dena taldea igo dela izango da. Helburua argi eduki behar dabe, ze jentek "zer lortu da?" galdetuko dau eta ez "zelan?"

Bestetik, gaur hamabost Eusko Jaureritzak erabaki eban partiduak ez jokatzeko, zikloiarengatik. Ados, ontzat emoten dot: arrisku handia zegoen, Katalunia aldean konprobatu den moduan, baina... Anoetan eta Lezaman jokatu ziren partiduetan ez zegoen arriskurik? Legea ez da berdina denontzat?

Orain datoz kontuak. Beti dago baten bat abantaila atera gura dauena gertakizun honeetatik. Hori gertatu ez daiten, Federazioak epea ipini behar dau lehenbailehen, eta erraztasun guztiak emon partiduak aurreratzeko, taldeak ados jarriz gero.

Kasualitatea da, baina azkenengo lau denboraldietan hirugarrenez suspenditu dira partiduak jardunaldi berdinean; hau da, bigarren bueltako lehenengoan.

Adituarentxokoa

## Urrejola eta Ocerin dira Arratia-Nervioiko onenak



Partida ederra jokatu zuten Urrejolak eta Ocerinek. J.Fernandez

Ibon Urrejola otxandiarrek eta Ander Ocerin zornotzarrak XXV. Arratia-Nervioi Pilota Txapelketa irabazi zuten, joan zen zapatuan, Zornotzan jokatuak finalean. Otxandio eta Lemoa izan ziren aurrez aurre, eta gurek egurtu egin zituzten lemoarrak: 22-3. Beraz, Meretzimendu osoz jantzi zuen txapela eskualdeko bikoteak.

**Gurek erraz irabazi zuten Lemoaren kontrako finala (22-3)**

Urrejola jaun eta jabe izan zen atzean, eta Ocerin askoz inspiratuago ibili zen aurrean. Kontuan hartu behar da, gainera, lemoarrak partidurik galdu gabe iritsi zirela finalera.

### Trinketean ere ari dira

Urrejola eta Ocerin Bizkaiko Trinke Txapelketan eta Bizkaiko Udaberri Txapelketan ere ari dira. Trinketeko lehenengo partidua gaur jokatu dute Lekeition, 18:30ean hasita. Udaberri Txapelketari martitzenean ekin zioten lurretan. Galdu arren, oraindik badituzte aurrera egiteko aukerak.



# Herbehereetan dira abadiñarrak iazko txapela berritzeko asmoz

Europatik bueltan, hilaren 14an, 680 kilora arteko txapelketa jokatuko dute Oiartzunen



Orain arteko txapelketa biak irabazi dituzte. Kepa Aginako

Gaur goizean Herbehereetara abiatu dira Abadiño Sokatira Taldeko tiralariak. Bihar, hirugarren urtez jarraian, Herbehereetako Openean parte hartuko dute Abadiño talde biek. 2007an bi pisutan garaitu zuten, eta iaz 600ekoan nagusitu ziren. Beraz, Euskal Herrian ez ezik atzerrian ere abadiñarrak goi mailan dabilta, eta maila horri eusten saiatuko dira bihar.

**Herbehereetako Openean bi pisutan irabazi zuten 2007an eta 600 kilokoan iaz**

Abadiño oso harreman estua du hango taldeekin, eta, hemengoak hara joaten diren moduan, hangoak ere hona etortzen dira. Horrela, sokatira zabalteaz gainera, kultur elkartrukea ere ematen da txapelketa horietan, eta hori beti da aberasgarri.

Nolanahi ere, Herbehereetako taldeak ez dira atzerrian aurkitu daitezkeen areririk indartsuenak. Erresuma Batukoek maila hobea izan ohi dute, eta japoniarrekin ere tentuz ibili beharra dago, iaz Italian jokatuako Munduko Txapelketan argi geratu zenez.

Euskal Herrian, ordea, Abadiño aurten ere ez du parekorik. Joan zen asteburuan goma gaineko 600 kilora arteko txapelketa irabazi zuen Lesakan. Gainera, tiraldi guztiak irabazi zituzten. Amaiur izan zen bigarren, zazpi punturekin. Berriozarrek bost puntu batu zituen eta Sokarrik lau. Napurrak izan zen azkena, tiraldi guztiak galduta: "Beldurra ez, baina errespetua bagenion txapelketari. Egia esanda, espero baino errazago irabazi genuen txapela", dio Edu Mendizabal entrenatzaileak.

**680koan ere faborito**  
